

# ttipi ttapa

2006ko azaroaren 2a • XXVI. urtea

433



**Kantu Zaharren  
Eguna Lugaranan**

03

Angel Mariezkurrenak antolatu du azken hiru urteotan Kantu Zaharren Eguna. Aurten 350 lagun espero ditu azaroaren 25ean Dantxarineako Lugaranan.



**Doneztebeko feriak  
azaroaren 17an**


GB

Feria eguneko arratsaldeko herri kirol saioan, Nafarroako 2. mailako aizkolari txapelketa eta Euskal Herriko kintopeko harrijasotzaile txapelketa erabakiko dira.

04

ESKULTURA ORDAINTZEKO

**Ramon Latasari  
buruzko DVDa ere  
argitaratu da**





# Gurasoentzako ikastaroa

**Ikasi haurrei ipuinak kontatzen!**

**DATAK:** Azaroaren 20, 22, 27 eta 29an

**ORDUTEGIA:** 17:00-19:00

**TOKIA:** Berako Udalaren haurtzaindegia

**IZEN EMATEA:** 948 63 41 25 (goizetan)

**EPEA:** azaroak16

## OHARRA:

- Haurrek eramaten ahal dira, ikastaroak irauten duen bitartean zaintzaileak izanen baitira.
- Gurasoez aparte, haurrekin egoten diren berze pertsonak (aitatxi-amatxiak, zaintzaileak...) ere joaten ahal dira.
- Ikastaroa 15€ kostatzen da. Ordainketa ikastaroa hasita egingen da.

Antolatzailea:



**BORTZIRIETAKO  
EUSKARA  
MANKOMUNITATEA**  
Herriko Plaza 7 • ARANTZA  
Telefonoa: 948 634 125  
Faxa: 948 634 192  
bortzirietako@euskamnet.net



**EUSKARA  
BAI GOXOA**

# EHIZA XIV. JARDUNALDI GASTRONOMIKOAK AZAROA

Bazta, Bertizarana, Malerreka eta Bortzirietako 7 jatetxek eskainirik, betiko menuez gain uso, basurde, orein, erbi edo oilagorrez osatutako menuak dastatuko dituzu, betiko moduan edo era berrietan eginak



**25 - 30 €**

arteko menuak

(Edari eta BEZ kanpo)

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



## JATETXEAK

### ALMANDOZ

Besta, .....: 948 58 58 02

### ARANTZA

Aitza, .....: 948 63 41 79

### BERA

Zelai, .....: 948 63 09 67 - 948 63 11 06

### DONAMARIA

Donamaria Bista, .....: 948 45 07 06

### DONEZTEBE

Ameria, .....: 948 45 19 02

### IGANTZI

La Villa, .....: 948 63 72 06

### LESACA

Kerkanta, .....: 948 62 75 19

Noticias

## DATUAK...

- Eratsunen sortu eta Sunbillan bizi den Angel Mariezkurrena da Kantu Zaharren Egunaren antolatzailea.
- Duela bi urte Sunbillako Ulibeltzak elkartean antolatu zen lehen edizioa eta laz Elizondoko Lur dantzalekuan egin zen. Aurten, Dantxarineko Lugarana jatetxean egingen da azaroaren 25ean.
- Sunbillako kanpinean, Elizondoko Antxitonean eta Lugaranan bertan salgai daude txartelak 50 euroan.



Angel MARIEZKURRENA *Kantu Zaharren Eguneko antolatzailea*

## «Kantu zaharren bitartez Euskal Herriko historia ere ezagutzen da»

Aitor AROTZENA

Zergatik antolatzen duzu Kantu Zaharren Eguna? Ohitura hori galtzeko arriskua somatzen duzu edo zeonek baduzu halako afizio berezirik?

Eratsunen nahiz inguru honetako edozein herritan ohitura hori izan da beti: bazkal ondoren edo afal ondoren, kantu zaharrak kantatzea. Hori pixko bat baztertzeko hasia zen. Ni Amaiurko talde batekin biltzen naiz ostiralean kantu zaharrak abestera. Horrelako zerbait Sunbillan egin zitekeela pentsatu eta horrela egin genuen lehenbiziko kantu zaharren eguna, duela bi urte. Ez nuen uste hainbeste indar hartuko zuenik eta egia errateko, hagitx polita atera zen. Hemengo ohitura horrek segitzea nahi dut. Kantu zahar guziek badute esanahi berezi bat, pilota dela, mendia dela, artzainak, elizako gauzak... Denek badute bere historia eta kantu zaharren bitartez Euskal herriko historia ere ezagutzen da.

laz izugarritzko arrakasta izan zenuen Lurren, diskoteka bete... aurten, jende aldetik zerbait xu-

«Mahaingurua kantatzeko ohitura hori ez galtzea nahi nuen eta ikusten denez, ez da galdtu. Indar handia hartu du eta polita da»

meagoa izanen da, Lugaranan 350 lagunendako lekua baita...

Urtero lekuz aldatzen joan gara. Aurten Lugarana aukeratu dugu, Dantxarineko Benta Peion. Leku hagitx polita da eta apala, goxoa, beroa. Kantu zaharrak kantatzeko politena elkarrekin izaten da, baina hainbertze jende joan nahi duenez, leku gehiago behar da. Laz, Lur dantzalekuan jende asko bildu ginen, oso ongi antolatua zuten, baina, beharbada, kantuan aritzeko hotz xamar gelditu zen. Giroa berotzeko asmo horrekin, herri berekoak elkarrekin jarri nahi dituzue...

Txartelak zenbatuak daude eta, ahal dela, txartela erosterakoan zein herrikoak diren zehaztea ere eskatzen da. Honela, mahai berean egonen dira.

Kantu zaharrak abestea eta aditzea gustokoa duen edonor joaten ahal

da egun honetara, baina horretaz gain, urtero kantari ezagunak edo pertsonai famatuak ere gonbidatu dituzue. Aurten ere izanen da halakorik?

Hasiera-hasieratik Kantu Zaharren Egunari indarra eta berezitasuna emateko, gure artera kultur aldetik lan egin duten pertsonai interesgarriak ekartzen saiatu gara. Azken ordura arte ezin izaten da erabat baieztatu, baina Pantxoa eta Peio, Eguzkitze, Peñagarikano, Jaione Olazabal, Oskar Estanga eta gehiago ere izanen dira. Egun horretarako propio kantu liburuxka ere argitaratuko da...

Urtero egin dugu liburuxka bat. Aurten, lazko kantuez gain 30 kantu gehiago sartu ditugu. Bakoitzak bere liburua izanen du plater ondoan eta gero, nahi duenak, lagunentzat edo familiarentzat hartzeko aukera izanen du. Saldu ez dugu egingo, bakoitzak bere borondatea utzi dezala. Hor ateratzen denarekin, kulturaren aldeko zerbait bultzatu nahi dugu. Aurten, Sunbillan Ramon Latasari eskultura eta omenaldia egin nahi diotenez, horretarako joanen da diru guzua.



UZEZIO ARGAZIA

1959ko apirilaren 26an, Latasa eta Luxiaren arteko apostua Donostiako zezen plazan. 17.890 ikusle bildu ziren.

AIZKOLARI HANDIARI BURUZKO DVD BAT ARGITARATUKO DA

## Ramon Latasari eskultura egiteko lanean segitzen dute Sunbillan

**Ramon Latasaren oroimena berreskuratu nahi dute Sunbillan. Garai batean hainbertze jarraitzaille eta fama izan zuen, baina historiako aizkolari handienetakoa izan zena ori eta bakarrik hil zen 1990ean Elizondoko Zahar Etxean. Nolabait zor historiko hori kitatzeko asmoarekin, bere izena eramanen duen plazan Ramon Latasari eskainitako eskultura egiteko dirua biltzen ari da herritar talde bat duela bi urtetik honat: loteria, zozketak, liburua eta bertze zenbait lan egin dira orain arte. Aitzinera begira, Latasaren irudiak biltzen dituen DVDak argia ikusiko du laister eta inguruko hainbat margolarik beraien lanak eskaini dituzte, saildu eta irabaziak eskultura ordaintzera bideratzeko.**

**Aitor AROTZENA**

Antton Espelosin da eskultura egiteko dirua biltzeko osatu den batzordeko kideetako bat. Berak aipatu digunez, Eduardo Zancada eskulturgile madrildarraren lanak 70.000-72.000 euroko aurrekondua du eta dagoe-

neko erdia baino gehiago bildu da: «Oraingoz 40.000 eurotik goiti esku-ratuak ditugu. Erdia baino gehiago pasatua dugu eta zailena egina dagoela iruditzen zait». Diru hori biltzeko lana gogotik egin behar izan dute azken bi urteetan: «Bi urte hauetan Lo-

teria atera dugu, Latasari buruzko liburua ere argitaratu zen eta hagitz kontent gaude izan zuen harrerarekin, 1.200 liburu baino gehiago saldu baitira. Horrekin, 12.000 eurotik goiti atera ditugu garbian. Joan den udan kotxe baten eta Kubarako bidai baten zozketa egin genuen, hor ere 10.000 euro garbi atera ditugu». Sunbillako udalak berak ere bi kontu ireki zituen, eskulturarako dirua biltzeko eta plazari Ramon Latasa izena jartzea erabaki zuen.

Etorkizun hurbilera begira, dirua ateratzeko bertze bi egitasmo dituzte begibistan: «Latasaren irudiekin eta bertze artxiboekin bideo bat egiten ari gara, garai hartako apostuak eta txapelketak bilduz. Bertze aldetik, udal txean margo erakusketa bat egiteko asmoa dugu. Egia erran laguntza izugarria izan dugu margolarien aldetik. Hamar margolarik beraien la-

## Antton ESPELOSIN *Liburuaren koordinatzailea*



ARTIBOKIA

**Eskultura bat egiteko, zergatik aukeratu duzue Ramon Latasa?**

Ramon Latasa kirolari famatua izan zen, herria izan dugun famatuena eta sekulan izan den aizkolari onenetako bat. Herria bertan gazteenek ez zuten ezagutzen eta nor izan zen gogoratzekeo ideia ona iruditu zitzaigun eskultura egitearena. Sunbillan izena ere plazaz plaza eraman zuen, Euskal Herri osoan eta nik usate, zerbait egitea ere zor geniola Latasari. Azken urteak nahiko trixte eta bakardadean eman zituen, gaitz larria izan zuen eta jendea pixko bat urrikitua ere bada ho-

rregatik: bere azken urteetan gutti xamar lagundu ote zitzaion.

**Herritarren eta eskualdeko jendearen aldetik, nolako erantzuna izan duzue?** Erantzun hagitz ona izan da. Igual aspertzen ere hasiak dira, hainbertze denbora baitugu honetan: bi urtez loteria, gero zozketa... baina halere jendeak erosten du. Joan den urtean 18.000 euro baino gehiagoko loteria saldu genuen. Horrela erabaki genuen egitea, herri tiki hauetan diru gutti izaten da eta Latasarekin gogoratzen den jendearen borondateari esker ari gara aitzinera egiten. Noizbait egiten badugu

eskultura hori meritu izugarria izanen da. Ez da berdina, dirulaguntza batekin edo erakunde baten diruarekin dena segidan ordaintzea edo pixkanaka, jendearen laguntzarekin dirua lortzen joatea. Hori neretako handia da. Gainera, jendearekin so-lastu eta animoak ematen dizkigu, aitzinera segitzeko. **Eskulturaren maketa ere ikusgai dago Sunbillan...** Bai, abuztuan ekarri zigun eta izugarri gustora gaude duen itxurarekin. Egia da maketa buztinezkoa dela, eta berak aipatu zigunez, brontzezkoa egitearekin aurpegia aldatuko zaio. Bazkari batean bildu ginen eta erakutsi genion eskultura jarriko den plaza non izanen den eta berari ere aunitz gustatu zitzaion, nahiz herria, nahiz jarriko den lekua.

**“Sunbillako izena plazaz plaza ibili zuen eta Latasari zerbait egitea zor genion”**

*nak oparitu egin dizkigute: Elizondoko Tomas Sobrinok eta Ana Mari Marinek; Berako Itziar Mikelperezenak eta Juan Carlos Olaetxeak; Sunbillako Eva Irazokik; Zigan bizi den Jesus Montesek; Hondarribiko Xabier Sagarzazuk eta gero nahiko prezio onean hiru margo eman dizkigu Lesakako Juan Carlos Pikabeak eta bertze bat Erratzuko Jose Mari Apezteak. Azaroaren hondar aldera erakusketa egiteko asmoa dugu Sunbillako udaletxean eta gero saltzea. Hiru-lau enpresek hitza emana dute koadroak hartuko dituztela eta ikusiko dugu horrekin eta bideoarekin aitzinera egiten dugun».*

### HELDU DEN URTEKO BESTETARAKO PREST?

Handik eta hemendik xoxa bil-tzen ari dira eta eskultura heldu den urteko abuzturako prest izatea espero dute, nahiz eta presa handik ez izan: «Dena batean inauguratu nahiko genuke, bai plaza eta bai eskultura –dio Espelosinek–. Heldu den urteko abuzturako egitea eskatu genion eta horretan saiatuko zela erran zigun Eduardo Zancadak. Presa handirik ere ez dugu, hura betiko geldituko da eta guk nahi duguna ongi egitea da. Latasaren aurpegia ezagutu dadila behinik behin eta jendeak erran dezala, ‘hauxe zen Latasa!’».

### HANDIEN ARTEAN HANDIA



ARTIBOKIA

**1970eko abenduaren 13an Vasco-Navarro aizkolari txapelketa jokatu zen Doneztebeko Bear-Zanan. Ezker-eskuin, Mikel Mindegia gaztea, Latasa, Berakotxea, Polipaso eta irabazle izan zen Arria II.**

Ramon Latasa 1930eko maiatzaren 23an jaio zen Sunbillako Agurian. Gazte-gaztetatik lanean zaildua, abudo hasi zen herriko gazteekin aikora saioak egiten. Lehen apostua 25 urte-ekin jokatu zuen Lekunberrin, zortzi kanaerdikora Gofiren kontra, eta nahiko erraz irabazi zuen. Hiru hilabete beranduago, 1956ko maiatzaren 13an Al-berdiren kontra jokatu zuen eta hura ere irabazi. Urtebete beranduago Yurrebasori ere irabazi zion, hamasei ka-

naerdikotara. 1958ko apirilaren 22an Zeberioaren kontra jokatu zuen, aikora eta lasterka, eta hura ere irabazi. 1959ko apirilaren 26an jokatu zuen sona gehien izan zuen apustua, Luxia azkoitiarraren kontra. Donostiako zezen plazan 17.890 ikusle bildu diren, aikora apostu batek sekulan bildu duen jendetzarik handiena. Hura ere irabazi zuen. Geroztik, hainbat jokatu zituen, baita batzuk galdu ere. Azkena, 1973an egin zuen Agiteren kontra.

Lege Gordailua: NA-1324/85  
ISSN: 1578-4873  
Franko Itundua: 34/79  
TIRADA: 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria  
Anduzeta, 12  
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)  
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58  
Faxa: (+34) 948 63 54 57  
www.ttipi.net  
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.  
Presidentea: Peio Apeztebrea.  
Kudeatzailea: Joxemmanuel Irigoien.  
Zuzendaria: Aitor Arotzena.  
Publizitatea: Kulturari, SLU.  
Administrazioa: Amaia Goia.  
Berriemakalariak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontzi Klaber, Peio Zestau, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Ebeñike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Laetitia, Sandrine eta Krispin, Angela eta Xamo, Aitor eta Fanny, Nerea Aitzuri, Oskar Txopenena, Joseba Olagarai, Nerea Mibeltorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Maite Oñeiza, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...  
Imprimategia: Gertu.  
Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leitza, Goizuetza, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiako Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Maierrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

#### Harpidetzak sariak:

Hego Euskal Herria	30 €
Espainia	30 €
Sara (edantegia-okindegia)	40 €
Ipar Euskal Herria	50 €
Europa	50 €
Amerika	108 €
Baztan, Urdazubi, Maierreka eta Leitza	25 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernua laguntza jasotzen du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jasotzen du

## • IRAKURLEAK MINTZO •

### Sanz Jauna: Ez da euskararik gabeko Nafarroarik izanen

Euskararen komunitatea bizirik da Nafarroan. Bertako hizkuntza, euskara, aurrerantzean ere munduko hizkuntzen mapan kolore berezituaz izaten jarraitzeko nahia sustraituta dago, mendeetako atzerakada eta gutxitzetik sendatzen nahikoa lan badugu ere. Ibilbide luzea egin du gure hizkuntzak. Nafarroako iragana da, oraina eta baita geroa ere.

Eta hala izanen da, ez noski, zuk egindako ekarpenari esker. Izan ere, euskararen aurkako gurutzada zuzentzen duzu aspaldi honetan. Euskararen eta euskaldunen zokoratze, bazterte eta diskriminazio politika muturrera eramanez dituzute urteotan, eta beraz, parlamentuan egin dituzun azken adierazpenak entzunda ez ginateke sobera harritu beharko. Antzekoetara ohituta gaituzula-eta, ordea, ezin diogu asaldatzeari utzi.

Bertze behin ere euskararen normalizazioa oztopatu eta are ezinezko egiten duen hizkuntza politikaren gorripamena egin duzu. Ezin ikusian oinarritzen den hori, nola aurkez diezagukezue elkar bizitzaren eredutzat? Gizarte bizitzaren arlo guztietatik desagerraraztea helburu izan dituzten makina bat erabaki hartu duzu. Denok ditugu gogoan.

Jakina da zure tema; nafar guztion ondarea den euskararen kontrajardun etengabea. Zure baieztapenek era-

kusten duten ezjakintasuna izugarria da (kate-toa eta hipotenusaren kontu horretaz ari gara), eta lotsagarria tamainako ardura duen norbaiten aldetik.

Euskarazko unibertsitatea kalitate txarrekoa litzateke erran duzu. Dereduak duen eten gabeko hazkundeak kezkatzen al zaitu? Euskarazko irakaskuntza kaltetzeko baliatzen al dituzu gisako formulazio faltsuak? Kalitateko euskarazko unibertsitate eskaintza egiteko gako borondate politikoa da. Euskararen erabilera arautu, unibertsitatean irakasteko baliabideez hornitu, eta orduan ikusiko dugu benetan kalitate eskasekoa ote den, eta ikasketak euskaraz egin dituzten titulatu gaitasuna apalagoa. Ez ote da izanen alderantziz izateari beldur diozula? Bide batez, gero eta handiagoa den euskaraz ikasteko eskariari (eskubideari) erantzuteko gai den eskaintza eginen luke unibertsitateak Nafarroan.

Administraziooko lanpostuak betetzeko lehaketa publikoetan euskara meritu moduan baloratzeari ezezko biribila eman diozu. Beronekin harremanean euskaldunok normaltasunez gure hizkuntza (bertako hizkuntza) erabiltzeko eskubidea bermatzeko, ezinbertzekoa da langile publikoek euskaraz jakitea. Aspalditik ari gara gauza bera errepikatzen. Eta hori ez da ziurtatzen euskara merezimendu gisa baloratuta. Aitzitik, guinolaz ere asebetetzen ez gaituen neurria, zuk gaingitu ezinezko sabai gisa paratzen duzu.

Eta hara non, ingurumaria honetan, Iruferriko inkesta soziolinguistikoa ikerlanaren emaitzak eman diren argitara. Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuak agindutako ikerketa izaki, behinik behin ez zaizu susmagarria irudituko, ezta? Zeren, emaitza horiek demostratzen baitute zure adierazpenekin ez dutela bat egiten herritarrek.

Iruferriko %77ri ongi iruditzen zaio euskara kontuan hartzea Administrazio Publikoan sartzeko, eta %84,4k egoki ikusten dute euskara unibertsitatean erabiltzea. Ematen du zure adierazpenei zuzenean erantzun dietela herritarrek, inkesta duela zenbait hilabete egin bazen ere.

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak aspaldiko garaletan euskarari kalte egiteko abian jarri den hizkuntza politika buka dadila eskatu nahi dizue, eta euskararen normalizaziorako trabak jartzeari utz diezaiozula behingogatik.

**Vicente AROTZENA  
BIURRARENA**  
Bortzirietako Euskara Mankomunitateko Lehendakaria

### Kotto, gogoan zaitugu!

Urte bat joan da herri-erailtzaleen errepresioak Kotto erail zue netik. Herri-erailtzaleak, bai, hori baitira asimilazio inperialista helburu, herriak ukatu, okupatu eta zanpatzen dituztenak. Eta erailketa,

Kottorena, bai, haiek diseinatu eta gauzaturiko errepresioak eragin baituzten gure lagun eta burkide maitearen heriotza. Haien bahiketak, haien torturak, haien espetxeratzeak, haien sakabanaketak, haien barkatzeak... Hortaz, urteurren honetan errepresioaren aurkako oihu tinkoa egin nahi dugu.

Halaber, azpimarratu beharrezkoak dugu, Kotto (eta geroztik Igor, Roberto, Aitor, Iñaki,...) erail arren, hain zuzen ere euskal borrokalariaren eskuzabaltasunari esker, kasu honetan espainiar eta frantziar estatuak herri-erailtzale frustratuak direla, Euskal Herria bizirik eta aske izateko aukerarik delarik.

Hortaz, urteurren honetan Herriaren aldeko eskuzabaltasuna goratu eta borrokaren balioaren garrantzia ere azpimarratu nahi dugu.

Eta jakina, eroritako guztien eskuzabaltasuna eta konpromisoa burutan, denon ahalegina eta lana indartzeko deia-darra ere egin nahi dugu, bizi dugun testuinguruan Euskal Herriaren eskubideen aitortzaren alde mobilizatuz eta nazio eraikuntza eta jendarte eraldaketan aktiboki eraginez.

Zuei, Imanol, Aina, Iñaki, muxu handi bat bihotzez.

Hiri Kotto, agur eta ohore berriz ere. Hik emandakoak gurekin eta herri osoarekin jarraitzen dik.

Ez dugu barkatuko! Autodeterminazioa eta amnistia, independentzia eta sozialismoa! Irabaziko dugu!

**Berako  
Ezker Abertzalea**

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



BERRIA 2006-10-25

«Ikaragari gustatzen zait umeeekin lan egitea. Haurrak oso esker onekoak dira, eta kalean bertan nabaritzen dut. Umeei freskura handia dute, baita bizitasuna ere. Haurrak izango dira ziurrenik publikorik onena».

«Zuzeneko oso polita da, eta telebistan dagoen gauzarik ederenetakoa da. Aurkezlea proban jartzen da eta ezin da ezer gaizki egin. Azken finean, zer egiten dakizun erakutsi behar duzu».

Joseba OLAGARAI  
ETBko aurkezlea  
BERRIA 2006-10-25

«Mindegiak harritu nau gehien azken 10 urteetan. Adin horrekin jardute hutsa ere harrigarria da, eta onenen parean dihardu. Zintzo jardun du prestatzen eta zortea izan du osasunarekin. Arrospidena ere aintzat hartzekoa da».

«Egia da oraingo aizkolariek gehixeago lantzen dutela prestakuntza gimnasioan, baina ez dut uste horrek horrenbesteko eragina duenik».

Antonio JAUNARENA  
Zubietako aizkolaria  
BERRIA 2006-10-19

• 11 GALDERA LABUR •

Aizkoran, iturgintzan, ikasketetan... Non moldatzen zara hobekiago? Aizkoran hobekiago, hori dut gustokoena eta!

Zer da zailagoa, hondatutako grifo bat moldatzea edo kanaerdiko enborra moztea?

Segun, izaten dira grifoak moldatzeko zailak, baita kanaerdikoak ere. Bitako batean kanaerdikoa moztea nahiago dut.

Gazteen San Migel Saria irabazi zenuen Igantzin... Etorkizunean txapel gehiago etorriko dira?

Pentsatzen dut, lanean segituz eta sufritu etorriko direla uste dut.

Larretxea txapeldun, Mindegia desafioan... non zaudete aizkolari gazteak?

Gu horietatik dexente behegiago gaude. Oraindik ongi daude eta marka haundiak egiten dituzte.

Entrenatzeko zer duzu nahiago, gimnasioan pesak egitea edo mendian lasterka ibiltzea?

Bietako batean mendian ibiltzea, pesak ez ditut probatu.

Etixerako egurra moztean, aizkora edo motozerra erabiltzen duzu? Aizkora nahiago dut. Gehienek motozerra hartuko lukete, baina...

Iturengo bestak edo Aurtizko San Martinak?

Biek ere bestak dira eta gustora, baina nahiago Sanmartinak.

Besta egiteko ez al da hobe galtza

moztean ibiltzea zamarra janzteko baino?

Ez, ez, besta egiteko ez du arropak zerikusirik, giro ona izanez gero...

San Martin egunean aizkoran aritzeko, bezperan ez duzu bestarik egingen?

Ez, ez, hortan egon beharko dugu lasai.

Mindegiarekin bikote eta Donato kontrario... Zer sentitzen da hain aizkolari handien artean?

Beti gusturago aritzen zara, horien ondoan ikasi ere egiten da.

Aizkoraz gain, bertze zein kirol duzu gustoko?

Ikusteko eta aritzeko ere pilota gus-tatzen zait.



**Ander ERASUN**  
Aurtizko aizkolari gaztea

**bortzirUDI**  
bortzirudi@telefonica.net

KARTELAK • KANSETAK • BIZERAK • TOSKERORAK (Nahi duzun neurri - bitasunarekin)  
FOTOKOPIA DIGITALAK, KOLORATUAK, TITULU-BELUZAK • PLANOAK  
ENKADERNAZIOAK, PLASTIFIKAZIOAK, PEPELETIK • BULEGO MATERIALA  
DISEÑO GRAFICOA • LOGOTIPOAK • ERROTULUAK • IMPRENTA

Erteora, 26. Erkuinekoa Beha D • BERA • Tel-Fax: 948 631 521

**ERREKALDE**  
PLASTER KONTAKTIBURAK • MATEMATIKA  
PARTIDAK  
BASKETEA

Ongi pasa bestak!

TFNOA: 948 630 259 BERA

© 948 631462  
Auzate 1 • BERA

**Xirail**

**PRIM, c.b.**  
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA  
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

**LEGARRA**

- EGUNKARIAK
- ALDIZKARIAK
- LIBURUAK
- OPARIAK
- TABAKOA
- FOTOKOPIAK
- ENKUADERNAZIOAK
- PLASTIFIKAZIOAK
- FAX PUBLIKOA

TESTU LIBURUAK ENKARGUZ

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

## KULTURA

# Udazkeneko Birako ekitaldiak ailegatu dira gure herrietara

Larunbatean, Arantzán, Areson eta Beintza Labaienen izanen dira

## ttipi-ttapa

Musika, antzerki, dantza eta zinema emaldiak eskaintzen dituen Udazkeneko Bira 200 eta 1000 biztanlearen arteko herrietara ailegatu da aurten ere. 1984. urteaz geroztik, ahalmen gutti dituzten herri ttipietara ekitaldi kulturalak eramatea helburu duen programak, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Departamentuak finantzatzen du. Udazken honetan 85.000 euro gastatu dira. Taldeari harrera egitea eta erakustaldiaren iragartzea eskatzen zaie herri.

## ANTZERKIA, DANTZA ETA ZINEA HERRIZ HERRI

Eskualdean, sei herrietara ailegatu da kultur zikloa: Donamaria, Arantzán, Areso, Beintza-Labaien, NARBATE eta Igantzira. Urriaren 21ean Elvi taldeak "Nor da panpina" antzezlan eskaini zuen Donamarian. Talde honen beste bi emaldi



UTZETAKO ARGAZKIA

## VII. Kafe Antzerki Zikloa

Berako Euskara Batzordeak Bortzirietako Euskara mankomunitatea eta Berako Kultur Batzordearen laguntzarekin antolatuta, azaroaren 3an eta 10ean Berako ostuetan antzerki ikuskizunak eskainiko dituzte. Lehendabiziko saloan, argazkian ageri den Ez Dok Hiru bikoteatroaren Larru Haizetara antzezlan ikusteko aukera izanen da Lixola ostuetan 22:00etan. Bigarren saloan, azaroaren 10ean, Goizeko Izarra taldeak Esketxak eskainiko ditu 22:00etatik aurrera Katakua, Ikulu eta Bidaxka ostuetan.

eskainiko ditu eskualdean: azaroaren 4an, 17:30ean Aresoko udaltxean eta azaroaren 25ean, 12:30ean NARBATEko frontoian. Azaroaren 4an, Arantzán, Orritz dantza taldeak

erakustaldia eskainiko du frontoian 20:30ean. Egun berean, Beintza Labaiengo Elizan "Anne Luise eta Antton" izeneko pelikula eskainiko da 21:00etan. Azken hitzordua Igantzín izanen

da abenduaren 7an. Kubiltxo taldeak "Argitxo eta Dir-Dir" antzezlan emanen du Baratzondo elkartean. Eskualdean izanen diren sei ekitaldiak euskaraz izanen dira.

## IKASTAROAK

## Aurre-sustatu ikastaroa antolatu du Cedernak Elizondon

## ttipi-ttapa

Empléate proiektuaren barruan, Aurre-sustatu ikastaroa antolatu du Cedema-Garalur elkarteko Lan Orientazio Zerbitzuak. Ikastaroa Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean emanen da azaroaren 14, 15 eta 16an, 10:00etatik 12:30era eta azaroaren 21, 22 eta 23an, 9:30etik 13:30era. Aipatzekoa da kurtsoa doanekoa izateaz gain, kilometraia ere subentzionatua da goela.

Edukiei dagokienez, enpresa bat sortzeko autoestima eta autonomia lantzen 5 ordu emanen dituzte; denboraren kudeaketan 5 ordu; Nafarroako mundu enpresariala aztertzen 2 ordu eta informatikan 8 ordu. Izen emateko, Cedernako Lan Orientazio Zerbitzura deitu behar da, 619 829289 edo 948 625122 telefonoetara.

**caroha**  
guztegia okindregia

27 de erdigara 25 bajo 1948 600 99  
3100 bera (navarra) www.caroha.net

Toailak-Mantelariak-Oheko maindireak  
Eskolako hauren mantalak etab...  
bordatzén ditugu

Herriko bestetarako, kamisetak, eta blusa  
peña bakoitzaren logotipo eta izenekin  
bordatzén ditugu

Itami Plz. Berría 4 ra eta ikusi bertako eskaintza!!! Tel. 948 627 660 - 689 481

**ATM S.A.**

AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS S.A.

**Igantzikoko Bentak**  
© 948 63 74 11

- Txapa mozketak eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Garraio zintak eta mahaia.
- Mantenu rodilloak.

**ZJ**

**Zalain**  
jatebidea

**Hostala**

14 logela,  
bainu eta TBrekin

Pl. Berría 4ra • Tel. 948 627 660  
Bera - Nafarroa



**BERA**

## Berriz ere lanean hasi dira Gureako langileak

Bertzalde, Kottoren heriotzaren lehen urteurrena gogoratzeko ekitaldiak egiten ari dira

**Amaia eta Ainhoa**

Composites Gurea enpresako langileak bi astez greban egon ondotik, urriaren 23an lanera itzuli ziren enpresako zuzendaritzarekin hasierako akordio batera ailegatu eta gero. Urriaren 21ean Enpresa batzordeak (ELAko 3 eta LABeko 2 delegaturekin) eta zuzendaritzak egindako batzarrean soldata %10a igotzea eta bi lan talde sortzea erabaki zuten, talde bat lan arriskuen prebentzioa hobetzeko eta bestea lanbide-kategoriak eta lansariak berrikusteko.

**Mojak Jesusen Bihotzan segitzeko sinadurak**

Beratar batzuk Jesusen Bihotza ikastetxeko zortzi mojak bertan segitzeko sinadurak biltzen hasi dira. 140 urtez San Vicente Paul kiritateko Alabak kongregazioak ikastetxea zuzendu du baina ikasturte honetatik aurrera, ja-

betasuna artzapezpikutzaren eskutan egonen denez, kongregazioak mojak eraikina uztea erabaki du. Mojak Jesusen Bihotza ikastetxean eta San Jose zahar etxean aritzen dira baina toki aldeketa ikastetxeetara bakarrik egin beharko dute. Lurraren Egunean hasi ziren sinadura bilketarekin, elkartzasuna adierazi eta herrian egindako lana eskertu nahizik.

**Pio Barojaren Heriotzaren 50. urteurreneko ekitaldiak**

Pio Barojaren heriotzaren 50. urteurrena dela eta, hainbat ekitaldi antolatu dituzte azarorako. Azaroren 8an Mikel Tabernak Barojatarrak Beran solasaldia eskainiko du eta azaroren 9an, Miguel Sanchez Ortiz eta Pio Caro Baroja arituko dira solasean. Azaroko 15etik 17ra hiru filma eskainiko dira: El Pais Vasco de Pio Baroja, Desde la última vuelta del cami-



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

**XX. Lurraren Eguneko gasna eta sagardo lehiaketako saridunak**

Urriaren 22an ospatu zen, Gure Txokoak antolatuta, XX. Lurraren Eguna eta 82 artisauk hartu zuten parte. Gasna Lehiaketan inoiz baino gasna gehiago aurkeztu dituzte, 20 zehazki. VIII. Sagardo Lehiaketa ere, 17 botilekin, arrakastatsua izan zen. Gasna Lehiaketako hiru sariak Arantzara joan ziren: lehendabiziko saria Salvador Madariagak lortu zuen (220 euro eta oroigarria), bigarrena Margarita Madariagak (100 euro) eta hirugarren Loli Mutuberriak (75 euro). Sagardo lehiakaren irabazlea Lesakako Carmelo Larraide izan zen (200 euro eta oroigarria) eta Lesakako Josefa Almandoz eta Alkaiagako Saturnino Pikabearen botilek izendapen berezia izan zuten. Euskal oiloen lotearen zozketako zenbaki saritua 49a izan zen. Irabazleak 608251897 telefonora deitu behar du 15 eguneko epean.

no eta La sima. Azken ekitaldia Arabar Errioxara bisita gidatua izanen da. Bazkaria upel-tegi batean izanen da eta izena emateko 012 zenbakira deitu behar da.

**Merkatari eta ostalarientzako ikastaroak**

Larun-Haitzpe, Berako Ostalaritza, Merkataritza eta Zerbitzu Elkartek, "Zure komertzioa nola hobetu?" ikastaroa antolatu du. Nafarroako Merkataritza Federazioko teknikari baten laguntzarekin komertzio bakoitzaren

barnetaz egiten da ikastaroa. Puntu ahulak, indartsuak, arriskuak, aukerak eta konpetitibitate abantailak aztertuko dira eta hauetatik abiatuz, bakoitzaren eta kolektiborearen maila hobetuko dira. Azaroren izanen da eta bi orduko hamar saiotan banatuko da. Kultur Etxean emanen da 14:30etik 16:30era. Interesatuak 607 303400 telefono zenbakira deitu beharko dute izena emateko. Matrícularen prezioa 30 eurokoa da kideak ez direnentzat eta doakoa kideentzat.

**Kotto gogoan**

Kotto Altzugurenen heriotzaren lehendabiziko urteurrena bete dela eta, hainbat ekitaldi antolatu dira. Joan den ortziraleko elkarretaratzearen ondotik Kottoren biziaz buruzko bideo proiektzioa eman zen Katakun. Astearte honetan elkarretaratzeara egitekoa zen Alzaten. Asteburuari begira, azaroren 4an, «Autodeterminazioa eta Amnistia» izenburupean manifestazioa abiatuko da Agerratik eta Sean, mendialdean egiten da Otsandara. Bertan ekitaldiak egiten da 11etan.

**ANSONEA**  
Ostatua - Jateetxea  
Eguneroko menua eta asteburutar menu bereziak  
Terraza estalia eta Ziberkafea  
Forzan Plaza 1 - 948 621 155 - BERA

**Alberto RETEGI**  
abokatuak  
abokatuak  
© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

**LABEZAR**  
Tel: 948 631 076 - BERA

## LESACA

# Kultur Etxearen proiektua airean

Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin eginda herria 20-25 urterako zorpetuko litzateke

Aitor AROTZENA

Karmeliten konbentuan Kultur Etxea egiteko proiektua airean dago. Nafarroako Gobernuak dirulaguntza handitzen ez badu Udalak ez du Kultur Etxerik eginen. Izan ere, iruñetik 904.413,53 euroko dirulaguntza eman dute, onartutako aurrekontuaren erdia. Baina laguntza horrek ez du kontuan hartu konbentuko obra berezia dela eta ez ohiko kultur etxe bati dagokiona. Eraikina egoera kaxkarrean dago eta Principe de Vianak bereziki babes-ten duela kontuan hartuz, horrek nabarmen igotzen du lanen aurrekontua. Udaletik aipatu dutenez, aurrekontua 6 milioi eurora ailegatzen ahal da eta Nafarroako Gobernuak eman duen laguntzarekin, herria 20-25 urterako zorpetua geldituko litzateke. Honela, urriaren 23an egindako ez ohiko batzarrarean, hartu duen dirulaguntzarekin ezin duela proiektua gauzatu erabaki zuen Udalak. Erabaki horren berri eman zioten urriaren 25ean

Juan Ramon Corpas, Kultura eta Turismo kontseilariari, herrira egin zuen bisitan. Honek, arazoa moldatzeko aukera guziak aztertzeke prest dagoela aipatu zuen, baina, hasieran aipatu bezala, Kultur Etxearen proiektua airean da oraingoz.

## Igerileku estalirako logotipo bila

Udalak igerileku estaliaren udal instalazioen logotipoa aukeratzeko lehiaketa deitu du. Logotipoak, inprimatuta, 25x20 cm. izanen du eta CD batean ere bidali beharko da, jpeg formatuan. Lanak aurkezteko epea azaroaren 24ko 13:00ak arte izanen da eta lehiakide bakoitzak nahi bertze lan aurkezten ahal du. Diseinu guziak jaso eta hasierako hautaketa egin ondotik, Lesakako udalaren webgunean emanen dira argitara, [www.lesaka.net](http://www.lesaka.net) helbidetan. Lehiaketa irabazten duenak 300 euroko saria eta igerileku estalian urtebeteko abo- nua izanen du.



ARGAZKIA: AITOR

## Mololo Irigoien eta Xabier Zozaiari omenaldia

Munduko pilota txapelketatik urrezko dominarekin itzuli diren Mololo Irigoien eta Xabi Zozaiak ongi merezitako omenaldia jaso zuten urriaren 14an. Hasieran, beraien koadrillak antolatutako ekitaldi xumea izan behar zen, baina azkenean, Arkupe pilotazale elkarteak eta Udalak ere bat egin zuten omenaldiarekin. Pala motzeko eta eskuzko pilota partidu bana jokatu ondotik, hainbat sari eta oroigarri jaso zituzten Mololok eta Zozaiak.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTELLO

## Ameriketako ibilitako artzainen topaketa jendetsua

Ameriketako ibilitako 500 bat artzain eta beren senideak bildu ziren urriaren 22an Lesakan. Baztan-Bidasoaldekoak ez ezik, Ultzama, Erronkari eta Iparraldetik etorritakoak izan ziren herrian. Artaldean eta argazki erakusketa, gaztaegileak, solasaldiak... eta bertze hainbat ekitaldi izan ziren goizean. Zaldunek eta artzainek artaldea herriko karraketan barna gidatu zutenean aunitzi begiak busti zitzaizkien Ameriketako garaiak gogoratuz. Eguna akautzeko 500 bat lagun bazkaltzera bildu ziren frontoian, giro ederrean.

**TALLERES BERRIZAUN**  
GASOLINERA LESAKA  
IMANOL TELLETXEA ZUZAYA  
Tfnoa.: 948 63 74 60 • 31770 Lesaka

**XATURETXEA**  
ZAZPI  
JATETXEA  
T: 948 637 027 - LESAKA

**IRU BIDE**  
Erelogia - Auzokor  
Buztegia, 3 - Lesaka  
Tel: 948 637 127

**GOJZ-ALDE**  
JAWARZUWDA  
MILITARI • MUSEO • JESU

## ETXALAR

# Bisitari parrasta izaten ari dira Usategietako bisita gidatuetan

Hamar haur bataiatu ziren joan den urriaren 22an

Joseba eta Nerea

Azkeneko hiru urteetan bezala, aurten ere Usategietan bisita gidatuak antolatuta dituzte Laura eta Edurne Elizagoien ahizpek. Urriaren lehenetik hasita azaroaren 20a arte, nahi duten guztiei zuzendutako ibilaldiak egiten ari dira eta hagitz arrakasta handiarekin. Usategietan barna postuak ezagutu, ehiza tradizionalari buruzko informazioa eman eta usazaleen lana bertatik bertara ikusteko aukera eskaintzen dute. Euskaraz, gazteleraz eta frantsesez hartu daitezke bisitak. Denboraldi honetan nobedade gisa, Usategien inguruko bideo bat ere ikusten ahal da. Bisita osoak 4 euro ba-

liru du pertsonako eta bideoa bakarrik ikusi nahi duenak euro bat ordaindu beharko du. Edozein ordutegitan eskaintzen dira bisitak. Nahikoa da 690267756 telefonora deitzea eta Edurne eta Laurarengatik galdetzea. Udan jende aunitz ibili da, 150 lagun baino gehiago, eta orain udazkenean ere martxa berarekin segitzen dute. Momentuz jende andana pasatu da lhamendiko gainetik eta bi ahizpak gustura daude bisitak izaten ari diren arrakastarekin.

### Mus txapelketa arrakastatsua

Dozena bat bikotek parte hartzen du ortzularero Herriko Ostatuak antolatutako mus txa-



Laura eta Edurne Elizagoien ahizpek ematen dituzte azalpenak Usategietako bisita gidatuetan.

pelketan. Bi lagunentzako bidaia da sari nagusia eta horrek animatuta, inoiz baino jende gehiago biltzen da astero-astero kartetan aritzera. Hilabetero irabazle bat ateratzen da eta hilabete guztietako txapelkunek elkarren artean jokatu dute final nagusia. Bidaiaz gain, landaetxe batean egonaldia eta bi lagunentzako dastaketa-afaria eskaintzen dira sari gisa. Zorte on denei!

### Inoiz baino bataio gehiago

Joan den urriaren 22an herriko 10 haur bataiatu ziren. Lehenbizi-

ko aldia da hainbertze haur elkarrekin bataiatzen direla. Lehen bataioak haurrak sortu ahala egiten ziren. Azken 30 urteetan berriz, urtean bitan egiten dira, Bazko igandean eta urriaren bukaeran. Hauek dira aurten bataiatu diren haurrak: Markel, Unax eta Luken Etxarte Leiza (Bekolandakoak), Maddi Egibar Iraola (Agerreberekoa), Ekiñe Arozena Arrosamena (Errekaldekoa) Kepa Telletxea Irisarri (Iturraldeko bordakoa) Alazne eta Naroa Irigoien Etxarte, Lander Lasaga Goienetxe (Errotagaraikoa) eta Ga-

briela Merino Lomas (Txirrimakoa).

### Baserrietako bideen moldaketa

Azken urte hauetan hainbat baserri bide moldatu dira Nafarroako dirulaguntzarekin baina aurten ez da dirulaguntzarik ailegatu eta baserri batzuetarako bideak moldatu gabe gelditu dira. Horren aitzinean udaletxeak bide hauetan behin-behineko moldaketak egitea erabaki du. Ozkaltzera doan bidea, Mendiondoko bordakoa eta Juanperitzeneko bordakoa moldatuko ditu.

arropak - maindireak mantak - nordikoak toallak - kortinak alfonbrak

**Goya**

Bera

Alzara, 5 - Tel: 948 630 083

MERTZERIA

*Leñe*

LENTZERIA

Tel: 948 627 514

Behetxe Plaza, 10 - LESAKA

**arkitektoak**

ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA

ESTRATEGIA PROIEKTUAK  
URBANIZAZIO PROIEKTUAK  
EZE BERRITZEAK  
GABERAK  
KONSULTAK  
INFOGRAFIA, ETC

SANTIAGO 55 2ºB ELIZONDOR - TEL: 948 581 931

**USOA**

nekazari kooperatiba

ganaduarentzat pentzurik egokiak

Tel: 948 635 214 - ETXALAR

**BEKO**

Lore eta landareak

Frain auzoa - LESAKA

Tfnoa: 948 637825

## ARANTZA

# Kultur Egunen egitarau zabala gauzatzen ari da egunotan

Ekitaldiak akautzeko, Baserritarren Eguna ospatzekoa zen azaroaren 1ean

Nerea ALTZURI

Urtero bezala eta urtaruari dagokionez, kultur egunen egitaraua aitzinera doa. Joan den urriaren 28an hasi eta azaroaren 1era bitarte kultur ekimenak antolatuta dira herrian.

Ekaitza elkarteak, guraso elkarteak eta Bortzirietako Euskara mankomunitateak antolatuta eta udalak lagunduriko ekintzak dira oraingoan ere. Joan den larunbatean bertso afaria izan zen Jon Martin eta Amaia Agirre bertsolariekin elkartean; igande arratsaldean berriz, «Erregea, soldadua eta Bufoia» antzezlanaz izan zen Mairu antzerki talerraren eskutik. Aste-

artera, urriaren 31ra pasaz, Afrikako ipuinak kontatu zituen Miren Kamisonek; eta azkenik, duela urte batzuetako ohiturarekin jarraituz, Baserritarren eguna asteazkenean, Santu Guzien egunean izanenda. Bertako produktuen erakusketa eta salmenta izan da herriko frontoian da herriko frontoian goizean zehar 10etatik aintzina: barazkiak, goxokiak, fruituak, tresnak, aziendak, loreak... 11:30ean herriko gaztagileek eginko gazten lehiaketa egiten da bigarren aldiz. Beraz, goiz polita pasatzeko aukera bada aurten ere merkatu bihurtutako frontoian eta inguruetan.



Artibokoa

Aurten ere, baserritako gaztarik onenak aurkeztu dira Baserritarren Eguneko lehiaketara.

## Gazta sarituak Berako Lurraren Egunean

Bortzirietako 20 gazta aurkeztu ziren Beran 20. Lurraren egunean zehazki hogeigarren gazta lehiaketan eta hiru sariak herrira etorri ziren. Aski gazta onak egiten direla herrian agerian gelditu da, orokorrean maila hagitza ona izan bazen ere lehiaketan. Lehenengo saria, 220 euro eta oroigarria, Eguzkialdeko Simonenbordako Xalbador Madariagak eraman zuen; bigarrensaria, 100 eurokoa hain zuzen, Serorinbordan gelditu zen eta Margari Madariagak

eraman zuen (jaz sari nagusia eraman zuen); eta hirugarren saritua, 75 euroekin Bordalarene auzoko Simonenbordako Loli Mutuberria izan da. Segidan gasna enkantea egin zen arratsaldean, eta 100, 50 eta 33 erotan eman ziren hiru sarituen gazta erdiak hurrenez-hurren.

Zorionak! Seguru herriko gazta lehiaketan ere partaide izanen direla!

## Udazkeneko Bira

Larunbat honetan, azaroaren 4an eta Udazkeneko Biraren barne, Orritz dantza tal-

deak emanaldia eskainiko du frontoian. Ilunabarreko 8:30ean hitzordua paratua da nahi duena ager dadin.

## Ehizi platerak dastagai

Aurten hamalaguraren aldiz Ehizari buruzko jardunaldi gastronomikoak antolatuta dira. Bertizko Landa Turismo zentroaren ekimenez izanenda eta eskualdeko zenbait jate-txek parte hartzen dute ehizi menuak eskeiniz. Arantzako Aterpen ere, azaroaren 25era bitarte ehizi platerak dastagai izanenda dira kartako menuetan.

**Jose I. Gonzalez Enguita**

Pintura lanak  
nabokorren

Tel: 948 233 498  
948 630 683

Bidasoa 40 - 1. ezk.  
31780 BERA

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratatutako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESACA: Bittiria, 71-behea · Tel: 948 637 050 · Faxo: 948 637 404  
BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxo: 948 133 713

HIDROERRENTZAZ  
HIDROSEMBRA

FEMEN MANTOINERA  
LARRALDEA

948 401 214  
948 631 190



ondo gordetzeko garaia da



[www.lasao.com](http://www.lasao.com)

100% haritz trinkoa

## DONEZTEBE

# Malerrekatik kanpoko kideei ere ateak zabaldu nahi dizkie Burrunbak

Erabakia bazkideek hartu beharko dute azaroaren 25eko batzarrean

## ttipi-ttapa

Gaske Burrunba taldeak Malerrekako mugak gainditu eta kide izateko aukera nahi duen guzari zabaldu nahi dio. Horrela proposatu zuten urriaren 21ean Azkarretan izan zuten bileran eta bazkideek erabakia hartu beharko dute azaroaren 25ean, 16:00etan eginen den batzar orokorrean. Batzar honetan, aurtengo ekitaldien balantzea eta autokritika eginen da eta 2007rako proposamenak ere aztertuko dira.

Etorkezun hurbileko ekitaldiei dagokienez, Burrunbak eta Errekak bi solasaldi antolatu dituzte. Azaroaren 11n. Txus Migeltorena urpekariak, Kantauri itsasari buruzko dokumentala aurkeztuko du 19:30ean zinean. Azaroaren 25ean, berriz, Gorka Bidegain eta Jose Juanenak Kubari buruz arituko dira, joan den urteko udan alde alde gurutzatu baitzuten Karibeko iria bizikletan.



ARTIBOKOIA

## Bi doneztebar Feria eguneko Nafarroako bigarren mailako aizkolari txapelketaren finalean

Ohikoa denez, feria egunean herri kirol saloa izanen da arratsaldean udal pilotalekuan. Nafarroako bigarren mailako aizkolari txapelketaren finalean bi herritar arituko dira, Juan Telletxea eta Luis Mari Belarra. Bereaekin batera, Xabier Mindegia, Jon Rekondo eta David Amillano izanen dira. Euskal Herriko kintopeko harrijasotzaile txapelketa ere jokatu da.

Joan den urteko arrakasta ikusita, aurtengo bigarren mus txapelketa antolatuko da. Lander Erkizia, Leire Amoros, Juan Telletxea eta Joseba Belarra ari dira antolatze lanean eta par-

tidak ortziraletan jokatuko dira.

Abenduaren 2an, Arantzoko elkartearen bertso-afaria plantatzeko asmoa du Burrunbak. Oinarrizko sukaldaritzako ikastaroa, aldiz,

heldu den urtera arte gibelatu dute. Seguruena otsailean eginen da, pastaz gain, bertze plater gehiago prestatzen ikasteko aukera emanen duen ikastaro hau.

## OITZ

Haur eta gazte mailako laxoa txapelketaren finalak jokatu ziren

## ttipi-ttapa

Urriaren 14an jokatu ziren Oizko plazan haur eta gazte mailako laxoa txapelketaren finalak.

Infantil mailan, doneztebarren arteko finalean, Aurelio Bertiz, Joseba Grazenea, Unai Sapuppo eta Josu Indak osatutako C taldeak 7 eta 4 irabazi zion Josetxo Ezkurra, Jon Andiarrena, Mikel Grazenea eta Emilio Zabalaren A taldeari.

Jubenil mailan berriz, Oitzek 9 eta 3 irabazi zion Arraiozi. Oizko taldearekin Ugutz Zelaia eta Iker Bereau, Andoni Saldias eta Garikoitz Urroz aritu ziren eta Arraiozen Aitor Zubigarai, Igor Retegi, Daniel Saldias eta Mikel Almandoz. Sari banaketan izan ziren Nafarroako Kirol eta Gaztediaren Institutuko zuzendari ordea, Nafarroako Pilota Federazioko gurentea eta Oizko alkatua izan ziren.

## SUNBILLA

# 180 lagun elkartu ziren Ulibeltzak elkarteko herri bazkarian

Bertzalde, igande honetan eginen da Sunbilla 4x4 Auto Triala Larrakaitzen

**Jaione OTXANDORENA**

Urriaren 21an eginen Ulibeltzak elkarteko antolatutako herri bazkaria. Hasiera batean, aurreko urteetan bezala, bazkaria Leku-eder karrikan egitea pentsatuta zegoen, baina dudako eguraldia zela eta, azkeneko momentuan antolatzaileek herriko frontoian egitea erabaki zuten. 180 pertsona inguru elkartu ziren, eta bazkalostean, Joxe Angel akordiolararen musikak lagun-

durik giro ederraz gozatzeko aukera izan zuten bertara hurbildu zirenek.

### 4x4 auto triala igandean Larrakaitzen

Sunbillako gazteek antolatuta, igande honetan, azaroaren 5ean, Sunbilla 4x4 Triala proba eginen da 10:30etik aitzinera Larrakaitzen. Izen ematea [www.basati4x4.com](http://www.basati4x4.com) Interneteko helbidean egin behar da. Lehenbailehen



4x4 autoen ibilerak ikusteko aukera izanen da igandean Larrakaitzen, herriko gazteek antolatutako proba ikusgarrian.

egitea komeni da, lehendabiziko 30 autoek bakarrik izanen baitute parte hartzeko aukera.

### Informatika ikastaroak

Azarotik aitzinera informatika ikastaroak emanen ditu Eskiz Informatika Zerbitzuak. Ikastaro hau, sei urtetik gorako ikasleei eta helduei zuzenduta egonen da. Klaseak goiko es-

kolan emanen dira, ordezgun arratsaldetan eta ordu bateko saioetan. Hilabeteko prezioa 20 eurokoa izanen da. Apuntatu nahi duenak, 948 581822 telefonora deitu behar du.

### Basurde ehiztariak suertez dabiltza

Joan den urriaren 22an Sunbillako basurde ehiztariak suerte ezin

hobea izan zuten. Uste gabean, hamahiru basurde hiltzea lortu zuten goiz batean. Lau basurde Mikel Arretxeak hil zituen, eta Juan Luis Apeztegiak, Bixente Altzuri, Xabier Altzuri, Urko Ibarra, Xabier Andueza, Martin Irigoien, Miguel Antzizar, Javier Mitxelena eta Iñaki Mikelarenak berriz basurde bana hiltzea lortu zuten.

1951tik lentzeria-etxea

**Casa Cambra**

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

edredoi nordikoak • ohe estalkiak  
albornozak • edredoi-azal nordikoak  
mairidireak • kuxinaktoailak • mantelak



EDREDOI-NORDIKOETAN ESPEZIALIZATUAK

## MALERREKA

# Aurtizko San Martin bestak azaroaren 9tik 12ra egingen dira

Aizkora desafioa jokatu da

## Ortzeguna 9

17:00etan: altxaferua San Martin bestei hasiera emateko eta ondotik kalejira bertako txistularien eskutik. 17:30ean: Haur jokuak. 23:00etan: Mus txapelketa, Aurtizko elkartearen. Ondotik trikitipoteoa bertako trikitilariekin.

## Ortzirala 10 BEZPERA

10:00etan: Argi soinuak Aurtizko txistulariekin. 11:30ean: Herri kirolak: emakume ezkonduak ezkongabeen kontra. A ze desafioa! 14:00etan: herri bazkaria Peñaga-

rikano eta Irazu bertolariak eta Joxe Angel akordiolariarekin.

**Atsaldean:** Joxe Angelek alaituko du giroa. **Gauetz:** dantzaldia KUPELA taldearekin.

## Larunbata 11 SAN MARTIN EGUNA

10:00etan: Argi soinuak, denak umore onez ernatzeko. 11:00etan: Meza Nagusia Martin Donearen ohorez. Ondotik, herrikoen arteko pilota partiduak: Tallerre eta Mixeltene; Burriñene eta Errandeneren kontra. 18:30ean: aizkora



ARTIBAROKAK

Duela urte batzuk Aurtizko neska-mutikoeek egin zuten herri kirol saioa eta aurtien ezkonduak eta ezkongabeko emakumeak izanen dira aurrez aurre. Herri bazkarian, Peñagarikano eta Irazu bertolariak arituko dira.

apostua: Hasteko, herriko fitxaje berriak bere erakustaldia egingen du. Ondotik, Migel Mindegia eta Ander Erasun, Donato Larretxea eta Alejandro Mindegiaren kontra. Ondotik Iturenngo dantza taldearen erakustaldia. 20:00etan: Aurtizko trikitilariak animatuko dute giroa! **Gauetz:** dantzaldia JALISKO BAND taldearekin.



## BESTEN BUKAERA

10:00etan: azken argi soinuak. 11:00etan Meza Nagusia. 12:00etan:

Euskal Herriko goma gaineko sokatira txapelketa 4x4. Gizonak eta emakumeak. 17:30ean: Trikitixa jaialdia. Gero,

## Igandea 12


**Lizun**  
GAZTANDEGIA  
 Etxeko Ardi Gazta  
 Petxenekoborda • SUNBILLA • Tel: 948 450 862


**BERA**  
 Zere inguruarekin Mota gazietako insektuz (xamerra, zinoarra, armarra, kukuxa...) eta errutai nagutzor garbitu nahi baduzu, deitu! Termite eta Pipien tratamenduak  


**GOIEKO** Industria Garbitasun Produktuak  
 Tel: 948 625 507 • Zuzen, 42 A • BERA

**BEINTZAKO OSTATUA**  
 ☎ 948 45 00 14  
 www.bera-bera.com  
 www.garbitasun-bera.com  
 BERRI BERRI ZABAIEN  

**ORBELA**


**PAGOLA**  
 EMBUTIDOS  
 artesanos desde  
**1940**  
 Altxateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

**EDARIK**  
  
**MANUEL TABERNA S.L.**  
 Bidasoa, 76 31780 BERA (Nafarroa)  
 Te Fax 948 63 10 27

**Pitti**  
 estabazleak  
 Tel: 616 513 491  

 Mendaketa etxea 34 ZUBIETA



## ITUREN

# Moldaketa lanen ondotik herriko zeharbidea ireki dute

Bertze aldetik, kide berriak sartu dira Ibintza kultur taldean

### Arkaitz MINDEGIA

Lau hilabetez ibxita egon eta gero Iturengo karrika berriz ideki dute. NA 170 errepidea moztua egon da azken hilabete hauetan herri erdian lanak egin behar zituztelako, hala nola, ur zikinaren sarea berritu, argi indar eta gas sarea lurperatu eta espaloiak egin. Marriezkurrena eraikuntzak egindako obrek 800.000 gastua izanen dute, gehiena diruz lagundua.

Obra horiek burutu

ahal izateko lur pribatuetan egin zuten behin-behineko saihasbidea ere desegin dute. Hala ere, oraindik zolaberritze lan batzuk egiteko gelditzen zirela eta, zeharbidea urriaren 31n berriz ere itxi zuten 8:00etatik 20:00etara. Lanak guziz akitu arte trafikoari bidea txandak emanen diote.

Obra hauek bukatuta, Udalak legealdi honetarako zuen proiektu handienetarikoa bat burutzen du.



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUIE

Ur-zikinaren sarea berritu, argi indar eta gas sarea lurperatu eta espaloiak egin dira, zeharbidea zolaberritu baino lehen.

### Aurtizko Ostata

Aurtizko ostata berriz ere hutsik gelditu da. Iturengo udalak plaza-ratu duen bandoaren bidez, jakinarazi nahi izan du nagusi berri baten aurkitzeko lehia publiko deialdia zabaldu baino lehen, herritarren bat interesatua balitz, lehentasuna izanen lukeela. Ostata, hotela eta jatetxea duen etxea, Aurtizko bestak baino lehen adjudikatu nahi-ko lukete. Udalaren ara-

bera kudeatzailea herritarra izatea ongi iruditzen zaielako ez dute baldintzarik finkatuko. Interesatua denak urriaren 30erako aurkeztu behar zuten bere eskaintza. Ea oraingoan luzerako hartzen den.

### Ibintza kultur taldean kide berriak

Azkeneko bilera ibintza kultur elkartearen kide berriak sartu ziren, herriko lau gazte. Norbaitek oraindik kide izan

nahi badu, ibintzako norbait erran eta nahikoa da. Azkeneko hilabeteetan buru belarri dabil-tza Ibintza kultur taldekoak abenduan ospatuko diren kultur egunen egitaraua prestatzen.

### Oharra

Norbaitek berri bat badu; bitxikeria edo herriko zerbait tipi-tapan argitaratu nahi baldin badu dei dezala edo e-postaz bidali arkaitzm82@hotmail.com helbidera.

**J. RAMOS**  
zolak akutzilatatu eta barnizatzen ditut

Phone 948 631 342 BERA - Phone 948 637 172 LESAKA

**ZUBIONDO JATETXEA**

Alasta karrika  
BERA NAFARROA  
TLF 948 625 472  
sagardotegia jatetxea sagardotegia

**tipi tapan**

☎ (0034) 948 635458

**PERSIANAS TOLDOS BAZTAN**

**TOLDOAK** salmenta-konponketa-alokairua-errotulazioa  
**MOSKITERAK-PERSIANAK** motorizatuak-venecianak  
**PVCzko LEIHO eta ITXITURAK**

Tel-Fax: 948 631 003  
Bidasoa, 66 behea - BERA

**MEDIKUNTZA NATURALA NATUROPATIA**

Kontak hartu ordegia: 9etatik 12etara eta 16etatik 19etara. Ondo eskatu

**ONDORIOETATIK INDARTZEKO:**  
Diabetia - Asma - Zizareak - Larru azaleko alergia - Buruko mina  
Oinen izerdia - Prostata, etab...

**IKUSMENAREN BERRERKURATZEA:**  
Miofia - Bista alferria - Estrabismoa - Begi lusuok kataraktak

**GHARRE ARAZOAK:**  
Bakaritzea - Artritis - Erreuma - Artrisia - Lunbalgia - Bihurdurak - etab

**Telefonoa: 943 623 055**

San Marcial, 7 - 4 - IRUN

## GOIZUETA

## Larunbat honetan ospatuko du Gaztetxeak bere 15. urteurrena

Eraso eta Pin Pan Pun taldeen kontzertua izanen da gauean

Esteban AROTZENA

Hamargarrenarekin egin zuten bezalaxe, hamabosgarren urteurrena handitasunez ospatuko dute Gaztetxeak hurrengo larunbatean, azaroak 4.

Askorentzat ekitaldirik garrantzitsuena arratsko 23:30ean Eraso eta Pin Pan Pun taldeek eskainiko duten kontzertua izanen da, baina egun osoko egitarauak badu ukitu berezirik, inolako dudarik gabe. Gaztetxeak gaur egungo «gidariei» atzera begiratzeko momentu ona dela iruditu zaie urteurren hau, eta horrexegatik, Gazte Asanbladako kide ohi, eta nola ez, oraindik kide diren guzietan, 14:00etan el-

kartzeko deia luzatu diente, guztiak argazki batean elkartu daitezten. Elkartasun horrek Umore Onan izanen du jarrapena, hantxe antolatutako guztiontzat bazkaria, 17:30ean parxis erraldola eginen da, eta 20:30etik aurrera, giro ederrekoa izanen dela aurreikusten den poteoa. Goian aipatutako kontzertuarekin bukatuko da 15. urteurreneko festa programatua. Handik aurrera bakoitzak berea antolatuko du, gehienek gosariarekin lotu arte, seguru aski.

### Azaro Kulturala

Azken urte hauetako ohiturari jarraiki, ekitaldiz beterik datoz azaro-

ko asteburu guztiak. Hilaren 11koa udala eta kultur taldeak antolatuta da. Ganbaran izanen da ilunabarreko 20:00etatik aurrera, eta euskal musika goxo eta atsegina egiten duen Itzalak taldeak joko du. Nerea Erbiti, Nerea Urbizu eta herriko musika eskolako kitarra irakaslea den Iñigo Agirrek osatzen dute hirukotea. Ondorengo asteburuerako ekitaldien berri hurrengo alean emanen dugu.

### «La Sexta» telebista katea

Azken aste hauetan futbolzale guzien ahotan dabilen «La Sexta» telebista katea ikus daiteke dagoeneko herrian.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

### Txapeldunak Gartzaronen

Gartzarongo Torneoaz geroztik, beste bi zapel gehiago badituzte herriko pilota eskolakoek. Oier Apezetxea kadeteak 18-2 irabazi zuen finala Zerdolarekin. Ekaitz Narbarte jubenilak, berriz, Telletxea zuen lagun eta 22-14 nagusitu zen.

Horretarako behar den tresneriguzia paratu du udalak Soratzikiko antenan, baina orain ebte bakoitzak bere TDT sin-

tonizatzailea erosi behar omen du. La Sexta kateaz gain, beste hiru kate berri ere ikusi ahal izanen dira orain.

## ARESO

## Mikel Olazabalek ez du Diario Vasco txapelketan parte hartzerik izango

Eskuin eskumuturrean ebakuntza egin diote

Juana Mari SAIZAR

Mikel Olazabalek ezin izango du Diario Vasco torneoan parte hartu bere eskuin eskumuturreko arazoagatik. Izan ere, urriaren 23an operatu zuten Bil-

bon Victor Galán doktoarearen eskutik. Diario Vaskoko antolatzaileek ordezkari baten bila dabilta baina esaten dutenez ez omen da oso erraza bere mailako aurrelari bat bilatzea Iza-

rekin bikotea egiteko, hauek baitziren txapela irabazteko faboritoak.

### Udazkeneko Bira

Azaroaren 4an Udazkeneko Birako ekitaldien barnean, "Nor da pan-



ARGAZKIA: JUANA MARI

ikasturtearekin batera eskolatik kanpoko ekintzak hasi dira: ingelera, sikomotrizidadea, ludoteka eta dantza emango dituzte.

pina?" izeneko antzerki emanaldia izango du gu udaletxean, Elvi taldearen eskutik, 17:30ean.

### Oihan ateratzea

Zubillaga enpresak pago zuhaitzak aterako ditu Merku parajeon, 19.500 euroren truke.

*doneztebe*  
**FERIAK**

azaroak 17



## ARozENA OSTATUA

Gosariak eta bazkariak

Eguzki Eder, 3 DONEZTEBE Tfnoa: 948450443

## SALDIAS HARATEGIA

Bertako haragi freskoetan espezializatuak • Elbako bistara

Karrika Nagusia, 21 • © 948 450191 • DONEZTEBE

## ALTXUNEA ERRETEGIA

Ongi pasa feriak

Tfnoa: 948 450 410

## PITTI

ESKABAZIOAK

Tfnoa: 616 513 491 • Amezitia • DONEZTEBE

## MAYLIN OSTATUA

- Bokadiloak
- Pintxoak
- Plater konbinatuak

Pamokia 15, DONEZTEBE  
Tfnoa: 945 45 03 00

## Mendiburu aziendak • tratantea

Tfnoa:  
948 450 084  
DONEZTEBE

**Amaya**  
LURRINDEGIA  
APAINDEGIA  
Amezitia 219 • DONEZTEBE  
Tfnoa: 948 450 163

Ezagutu gaitzazu

- Solarium bertikala
- Bitxidenda eta osagarriak
- Estetika
  - Kosmetika zientifiko biomedikoa
  - Medikuntza estetikorako kontsulta



# Bizitasun handiarekin abiatu da Doneztebarrak Merkatarien Elkarteak

Denda, ostatu eta hainbat zerbitzuren artean 50 bazkide ditu

### J. IRIGOIEN

Lehenbiziko kontaktuak urtarrilean hasi bazituzten ere, 2006ko maiatzaren 2an sortu zen ofizialki Doneztebarrak Merkatarien Elkarteak. Eta abiatze-prozesu horretan, merkatariak ez ezik herri osoa ere afektatzen zuen arazoak sortu zuen txinparta: karriketako trafikoak eta aparkalekuen antolamenduak. Zirkunstantzia horrek bizkortu egin zuen prozesua eta lagundu egin zuen mahai gainean jartzera merkatarien interesak eta premiak.

### Doneztebe, herri merkataria

Tradizio luzeko jarduera da merkatartizarena Donezteben. Malerreka, Baztan eta Bortzirietako bidegurutzean kokatua, berebiziko probetxua ateratzen jakin diote aspalditik geografiaren eta demografiaren okasionari.

Gaur egun ere, 1.500 biztanle inguru dituen herri honetan, merkatartiza eta zerbitzuei loturiko jarduerak garrantzia handikoak dira. Momentu honetan 50 bazkide ditu Doneztebarrak elkarteak, eta era guztietako dendak ez ezik, tailerrak, ostatuak eta hainbat arlotan aritzen diren zerbitzuak ere biltzen ditu bere baitan: 7 denda janari arlokoak,

3 auto-tailer, loredenda 1, 2 argazki denda, 4 etxetresna eta altzariak, 5 ostalaritzakoak, 2 bitxidenda, 2 liburutenda, 9 arropa denda, ile-apaindegi 1, 2 urrindegi, 3 farmazia eta bertze 9 zerbitzu eta handizkako saltegien artean.

### Urtean 120 euroko kuota

Elkarteko bazkideak urtean 120 euroko kuota ordaintzen du aurten, eta horren truke prestakuntza ikastaroak ez ezik, informazioa zabaltzeko hitzaldiak eta promozio jarduerak ere izanen dituzte. Dena den, urte bukaera bitarte jarduerak finantzatzeko dirulaguntzak ere hartu ditu elkarteak.

### Bezeroak gustora uztea eta aktibitatea mantentzea, helburu nagusien artean

«Aktibitatea mantentzea, eskaintzen duguna jendeak eskatzen duguna izatea, eta Doneztebe denontzako erreferentzia puntu izatea». Hiru erreferentzia horiekin definitzen du Doneztebarrak elkarteak bere helburu nagusia. Dena den, asmo nagusi horiek bertze 4 helburu zehatzagoren inguruan garatzen dituzte:

**2 Elizondoko FERIAK 2006ko azaroaren 17an**



Pedro Jose Lakar, presidentea



Isabel Elizalde, idazkaria


Argazkiak: Ainara MINDEGIA  
**Argazkietan Doneztebarrak Merkatarien Elkarteko zuzendaritza batzordeko kideak. Falta dira Jose Manuel Juanena (presidente orde) eta Fco. Jose Ezkurra (batzordekidea).**

**Erosleen partehartzea:** Arreta berezia jarri nahi du elkarteak bere inguruan dituen bezeroak bereganatu eta hauen eskaerak nondik nora doazen jakiteko. Horretarako, hainbat aktibitate egin nahi dituzte Doneztebeko eta eskualdeko taldeen parte hartzea sustatzeko, eta orohar, etorkizunari begira merkataritza-jarduera bixkortzeko Donezteben.

**Ingurumena:** Inguru naturala errespetatu eta mantentzeko laguntza emanen dute Doneztebarrak elkarteko bazkideek.

**Oroimen historikoa:** Doneztebeko etorkizun ekonomikoa aurreikusteko, iragan historikoa ikasbide ona dela iduritzen zaio elkarteari. Horretan, sektore ekonomiko bakoitzaren pisua aztertu bidenabar, aurreko, oraingo eta geroko modu komertzialak ere ikasi nahi dituzte.

**Sormena:** Merkataritzako jarduera sormenarekin lotua dagoela ikusten du Doneztebarrak elkarteak. Horregatik, artea erabili nahi dute euren ekitaldiak komunikatzeko formula berritzaile moduan, eta gisa horretara elkartu nahi dituzte aurretik aipatutako elementuak, bezeroak eta merkataria, eta biztanle gazteak eta helduak.



Jesus Mª Ruiz, diruzaina



Maite Zozaia, diruzaina



Luis Martin, batzordekidea



Amaia Pikabea, batzordekidea



Carmen Larrainzar, batzordekidea

Zerbitzu berriak!!

**Mailpostea Buzoneos**  
 El reparto profesional existe

kartelak - eskuorriak - txartelak - egutegiak - fakturak  
 pegatinak - liburudak - karpetak - zigiluak - etiketak  
 kartazalak - logotipoak - orri mutuak - boletoak  
 plastifikazioak - enkuadernazioak - errotulazioak

Leitzako bidea, 9 • DONEZTEBE • Tel. 948 592 313

**ALBAITERITZA  
 ZENTRU TEKNIKOA**

Juan Ramon Ostiz

Karrika Nagusia, 1 • Tfnoa: 948 450 591 • DONEZTEBE

**KONGELATUAK:**  
 Albondrek  
 Urdelazpiko,  
 oilasko, piper  
 eta arraultze kroketak

**Esarte**  
 AINTZINETIK PRESTATUTAKO  
 JANARIAK

Orain Bera, Lesaka, Etxolier eta Doneztebeko  
 janari dendetan

Jaime Urrutia 35 • 948 58 01 28  
 ELIZONDO

**Clinica Dental**  
 Irurita - Rubio

**ODONTOLOGIA  
 ORTODONTZIA  
 INPLANTEAK**

Dr. Jose Luis Irurita (Kol. 240)  
 Dr. Bihotza Rubio (Kol. 241)  
 odontologia medikuak

Rx. panoramikoa - periodontzia  
 Kirurgia - endodontzia - protesiak

**ODONTOPIEDIATRIA - PADI**

ortopedia maxilarra - umeak eta helduak

Leitza 948 610 713 Doneztebe 948 450 267



**BIXEN** ostatua  
Bakadillo eta platin auzoa  
948 450 383 - DONEZTEBE



**TITI BAR**  
Amezti, 7  
Tfn: 948 450 271  
DONEZTEBE  
orri postu furtibid



**ttipi** TXARTELA  
DESKONTUAK 38 komertzioetan  
eskatu zure txartela 948 63 54 58



**IPPINTZA**  
Aurtengo feriak umore ederrean pasatu  
Merkatarien karrika 28  
948 451826  
DONEZTEBE  
**OSTATUA**



**Lilura**  
leapaindegia  
Rosa Seminario, 17 - DONEZTEBE - 948 451 961



**P.J.M**  
**Pedro J. Martin**  
Azienda tratularia  
hurbildu azienda feria ikustera  
948 450 042  
Martinienea etxea - DONEZTEBE



Doneztebarrak elkarteko 5 bazkide sartu dira Cederna-Garalur elkarteak antolatzen duen *Jardunbide egokien eskuliburua* izeneko programan.

# Aldizkaria, prestakuntza ikastaroak eta hitzaldiak

Hurrengo hilabete hauetarako ere aktibitate ugari dituzte prestatuak

J. IRIGOIEN

Elkarte berria gizartearen aurkezteko 1.500 aldizkari banatu zituzten Doneztebeko besten aitzakian Malerreka eta Bertizaranako etxe guztietara. Momentu hartan berrogeita bi bazkide zeuden elkartearen sartuak eta, jendearen arreta pizteko, argazki makina baten zozketa iragartzen zen aldizkariaren azalean. Geroztik, hurrengo hilabete hauetan egiten diren egitasmoak ere lotu dituzte, eta horietako batzuk gauzatzen ari dira egun hauetan. «*Nahiz eta denbora gutxi eraman, lan egiteko gogo askorekin*» dabilzala adierazi digute elkarteko ordezkariak, eta aitzinera begira, jendearen parte hartzea nahi lukete «*ahal den gehienena*».

## **Ikastaroak eta hitzaldiak Nafarroako Merkataritza Federazioa eta Cedernaren bitartez**

«*Stockaren eta erosketen kudeaketa*», «*Informatika*» eta «*Efikaziarekin hitzegitea*» izeneko ikastaroak dituzte momentuz programatuak. Horietatik lehendabizikoa aritu dira egiten urriaren eta informatikari buruzkoa hilabete honetan egiten dute. Hirugarrena heldu den otsailerako dute programatua. Dendariaren interesekoak diren informazioak ere banatu dizkiete bazkideei, eta horien artean, Bisita Liburuari

buruz legerian berriki egon diren aldatetarak.

Hiru hitzaldi ere antolatu ditu Doneztebarrak elkarteak. Lehena, «*Merkataritza Federazioak eta Cederna-Garalur elkarteak eskaintzen dituzten zerbitzuak*» zabaltzeko. Bigarrena, «*Nafarroako Merkataritza Federazioak eskaintzen dituen ikastaro eta kalitatezko programei*» buruz, eta hirugarrena «*Cederna-Garalur elkarteak duen 'Jardunbide egokien eskuliburua' aurkezteko*».

Azkenik, «*Galbaraialde erreka garbitzeko lan taldearekin elkarlanean*» aritu dira elkartekoak, bai egunaren berri zabaltzen zein batuka emanaldia antolatzen.

## **Bertze egitasmoak**

Etorkizunera begira dituzten egitasmorik aipagarrienak ere zerrendatu dizkiote elkarteko ordezkariak Ttipi-Ttapani. Horrela, urtea bukatu baino lehen Doneztebarrak Merkataritza Elkartearen 2. buletina zabaltzeko nahi dute Malerreka eta Bertizaranako etxeetara; Eskolako haurren laguntzarekin eta Alvaro Matxinbarrenarekin, elkartearen leloa eta ikurra sortu nahi dute; Eguberrietarako animazio aktibitateak eta sustapen kanpainak prestatu; eta heldu den urte hasieran, birziklatzearen inguruan egun berezia antolatu.

DONEZTEBEKO FERIAK 2006

# Herri Kirol Jaialdi handia eskolako frontoian

Arratsaldeko 17:30etik aitzinera, Nafarroako II. Mailako Aizkolari txapelketaren finala eta Euskal Herriko kintopeko Harrijasotze txapelketa jokatu dira

A.A.

Azken urteetako ohiturari eutsiz, Nafarroako Herri Kirol Federazioak jaialdi handia prestatu du feria egunerako eskolako frontoian. Arratsaldeko 17:30etik aitzinera, Nafarroako bigarren mailako aizkolari txapelketaren finala erabakiko da. Bertan bortz aizkolari arituko dira, uztailen jokatu zen kanporaketan sailkaturiko lehen bostak: Juan Telletxea (Doneztebe), Luis Mari Belarra (Doneztebe), Xabier Mindegia (Beintza-Labaien), Jon Rekondo (Leitza) eta David Amillano (Altsasu). Finalean egin beharreko lana, berriz, bi enbor kanaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat moztea izanen da. Beraz, lehen mailako aizkolaririk izanen ez bada ere, Malerreka eta Leitzaaldeko aizkora zaleek aukera ederra izanen dute aizkolari gazteak nola dabilzak ikusteko. Telletxea eta Belarrak aukera ederra dute txapela herritarren aitzinean janzteko eta Mindegia gazteak eta Rekondok ere jarraitzaile uga-

ri mugituko dituzte Beintza-Labaien eta Leitzatik. Txapeldunak, noski, heldu den urtean lehen mailan aritzeko eskubidea izanen du.

## **Euskal Herriko kintopeko harrijasotze txapelketa**

Aizkoraz gain, harrijasotzea ere ikusgai izanen da frontoian. Izan ere, Euskal Herriko kintopeko harrijasotze txapelketa jokatu da. Bertan, 21 urte baino guttiago duten lau harrijasotzaile arituko dira. Iraitz Telleria (Gipuzkoa), Xabier Agirre (Bizkaia), Aimar Irigoien (Gipuzkoa) eta Gaizka Uriarte (Bizkaia). Egin beharreko lanari dagokionez, hiru minutuko txandak egin behar harko dituzte 100 kiloko zilindro zaharrenekin eta 100 kiloko kubikoarekin. Almar Irigoien errezildarra izanen da favorito nagusia, berriki Altsasun harri handien txapelketa ere irabazi baitu, adin librean, Azkenik, aizkolari erakustaldia ere izanen da, saioari akabaila emateko.



## Mendaur Motor



Leitzako errepidea  
Tfnoa: 948 450 333  
**DONEZTEBE**



Juan Telletxea eta Luis Mari Belarra herritarren aitzinen bigarren mailako txapela janzten saiatuko dira.

## APARAN, S.A.

BRIKOLAIA eta ZURAK



Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta berrizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab....



Jaime Urrutia, 22 • ELIZONDO • 948 580 496 • 948 453 253  
Ametzia • DONEZTEBE • 948 456 188

# EDERKI

PEUGEOT AGENTE OFIZIALA



PEUGEOT



Grua zerbitzua 24 ordutan  
Mekanika • Elektrizitatea • Txapa • Pintura  
Hidraulikan espezialistak

Leitza errep. • DONEZTEBE • 948 450 525



## KONTXA

### Gasolindegia

- ✓ Deitu eta egun berean edo biharamunean etxera eramanen dugu
- ✓ Garraio-enpresetan depositoak jartzen ditugu

## KONTXA

### kafetegia

- ✓ Bokadiloak eta Platerak
- ✓ Ogi egin berria



*Ongi pasa feriak!*

Tel: 948 450 272 · Faxa: 948 450 810 · DONEZTEBE





# SANTESTEBAN tailerrak

KOTXE IA BERRIETAN SEKULAKO ESKAINTZA: (Clio, Modus, Kangoo,  
Megane, Scenic, Megane Grand Tour, Laguna, Espace)  
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURAKO LANAK EGITEN DITUGU  
ESKATU AURREKONTUA KONPROMEZURIK GABE



Leitzako bidea  
DONEZTEBE  
Tfnoa: 948 450 282  
948 450 597



## AVIA

## E.S. DONEZTEBE

Gasola etxera eramaten dizu.

Zure eskariak egiteko telefonoa: 948 450 282



Kotxeak kanpotik eta barrenetik garbitzeko makinak

Leitzako bidea, 49 · DONEZTEBE  
Tel: 948 451 679 · Faxa: 948 450 857

Erakusketa

# Nafarroa: Guztion artean Etorkizuna eraikiz

an

Baluarte, Batzar Jauregia eta Nafarroako Auditorioa

2006/10/01 - 2007/01/07 (sarrera doan)

[www.navarraunfuturoentretodos.com](http://www.navarraunfuturoentretodos.com)



Nafarroako  
Gobernua



**LEITZA**

## Abian dira 2006-2007 ikasturteko eskolaz kanpoko ikastaroak

Gurasoek informatika ikastaroan parte hartzeko aukera izanen dute

Joseba URKIOLA

Udazkena etortzearekin batera ikasturte berriari hasiera ematen zaio. Etxeko txikiak eskolara itzultzen dira eta gurasoak berriz, beren eguneroko eginkizunetara bueltatzen dira. Gizarteko bi talde hauei zuzendutako albistea aipatuz, Erleta Eskolako "Denok Bat" Guraso Elkarteak antolatuta, abian dira 2006-2007 ikasturteko eskolaz kanpoko ikastaroak.

Ikastaro gehienek urritik Aste Santua bitarteko iraupena izango dute, nahiz eta maiatza bitarteko ikastaro batzuk ere izango diren. Lehen esan bezala, ikastaroak guraso eta haurrentzako bideratuak egongo dira. Haurren kasuan: haur dantzak, euskal dantzak, pilota, futbola, igeriketa, ludoteka... bezalako aktibitateak egiteko aukera egonen da. Gurasoek berriz, informatikarekin lotutako ikastaroak egiteko parada edukiko dute.



ARGAZKIA: JOSEBA URKIOLA

### "Maxurrenea Herrintzat" bizirik

Urriaren 14an larunbata, "Maxurrenea Herrintzat" plataformak antolatuta manifestazioa egin zen. Hilabete batzuetako geldialdiaren ostean, irailaren 29ko osoko bilkuran Larrain Herri plataformak hala iragarrita, berriro ere "Maxurrenea Herrintzat" plataforma ekintzak burutzen hasiko zela plazaratu zen. Talde honen helburu garrantzitsuenetako bat, askoren artean, egun Guardia Zibila bizi den etxe handi hori bestelako ekimen batzuetarako erabiltzea da. Lehen pausua emana du, orain ikusi egin beharko da etorkizunean zer nolako ekintzak antolatzen dituzten.

### Lurra eskuzabal

Aurtengoan ere gure inguruetako lurra eskuzabala izan da. Batzuek arrazoia eguraldian dagoela esaten dute, beste batzuek berriz zorte kontua dela aipa-

tzen dute, baina garbi dagoena da leitzaldean ondo asko biltzeko aukera egon dela.

Leitzar asko eta asko izan dira izugarriko kilo mordoak biltzeko zortea eduki dutenak. He-

rritarrez gain ere, eduki ditugu bisitariak ama lurak eskaintzen dituen altxor bitxi horiek berenganatzen.

Adituek esan digutenaren arabera, oraindik ere ba omen dago au-

**FLASH**

### Txertoa hartzeko kanpaina zabalik

2006-2007 ikasturteari dagokion Gripearen aurkako kanpaina zabalik dago. Hasiera urriaren 18an eman zitzaion eta azaroaren 30a bitarte eskuragarri izanen du edozeinek. Urtero modu txertoa hartu ahal izateko, Leitzako Osasun Etxera joan beharko da.

### Herriko pilotariak bikain lau terdiko txapelketan

Abel Barriola eta Oinatz Bengoetxea pilotariak, hasiera bikaina eman diote aurtego lauterdiko Txapelketari. Abelek Peñagarikano eta Asier Olaizola goizuetarrari irabazi die hurrenez-hurren. Bengoetxeak berriz, Capellan eta Eugi kanporatu ditu. Asteburu honetan jokatzekoak zituzten final laurdene-tako norgehiagokak, Patxi Ruiz eta Titinen kontra. Ea aurrera segitzetik izan duten!

kera zeozer biltzeko, baina ez da luzerako izango. Beraz badakizue, orainarte onddorik biltzeko aukerarik izan ez duzenak bizkor ibil zaitezte. Beste guztiei berriz, on egin!

**ERROTALDE BIDEO-KLUBA**  
 Nafarroa Kalea 13 - 31010 LEITZARREN  
 Telefonoa: 943 50 73 46 - 918 87 48 75

**ESKU LIBREKO TELEFONOEN INSTALAZIOA**

Asteleheneretan 18:00-21:00  
 Asteartetik ostirara 10:00-13:00 / 17:15-20:45  
 Larunbateretan 10:00-14:00 / 18:00-22:00

luis cestau baraibar      arkitekto teknikoa      leitza 607204485

lucésba @ msn.com

**Ark<sub>b</sub>** arkitektura bulegoa

Cela Lana Ranz      Erakuntza Hirigintza Udal-aholkularitza

Huarte Gotzal 7 - 31880 Leitza - 645006478 tel

## BAZTAN

# 3.400 kilo sagar jo eta estutu zituzten Kirikoketa bestan

Aurtengo denboraldiko sagardoa urtarrilean prest egonen da

## Maite Oteiza

Urriaren 21ean Kirikoketa doinuak aditu ahal izan ziren Arizkungo Gamioxarrean. Kirikoketa besta zela eta, Jo ala Jo kultur elkarteak aurtengo sagardoa egin zuen, joan den urtean konpondu zuen XVII. mendeko dolarean. Goiz osoan lanean arituz, 3.400 kilo sagar jo eta estutu zituzten. Lan gehiena elkarteko kideek egin zuten baina sagardoa nola egin den ikustera etorri zirenek lagundu ahal izan zuten. Hurbildutako jendearen artean haur batzuk ere baziren. Begiak zabal zabalik sagarra nola xehatzen den begiratu zuten. Helduak berriz harrituagoak zeuden dolarearen neuriarekin, Nafarroan dagoen handienetarikoa baita.

## SAGARRA JO ETA GERO, ESTUTZEA

Sagarra jo eta gero, zureria paratu zuten eta pixkanaka-pixkanaka



ARGAZKIA: MAITE OTEIZA

## Frontoi berritua inauguratu zuten Gartzainen

Urriko Pilarika Amabirjinaren herriko bestetan Gartzaingo herriak bere frontoi berritua inauguratu zuen. Azalera berdina mantentzen du baina altuera gehiago eman diote eta eskuineko sarea (irekie zena) luminariekin itxi dute. Nahiz eta herritarrek egun hauetan erabili duten, inaugurazio ofiziala azaroan izanen da, San Martin egunean.

estutzen hasi ziren. Sagarrak hiruzpalau hilabetez irakiten utzi ondotik sagardoa bilakatu den edaria ematen hasi zen.

Kirikoketa doinuek laguntzarekin goizean lanean gogor aritu zirenek, bazkaria eta arra-

tsaldea ederki pasatzeko aprobetxatu zuten.

## KIRIKOKETAZ GAIN TXALAPARTE ERE

Perkusio jaialdia izan zen arratsaldean eta kirikoketa doinuez gain Hernaniko txalapartarien laguntza ere izan

zuten arratsaldea animatzeko.

Bigarren urtea bertzerik ez bada ere, urteak joan ahala, baliteke besta hau sagardozaleen hitzordu bilaketzea. Horixe nahi lukete Jo ala Jo elkarteko antolatzaileek.

## FLASH

## Folk Ametsetan Arizkunenean

Folk Ametsetan zikloaren barne, datozen hiru igandetan kontzertuak izanen dira 19:30ean Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Azaroaren 5ean, Naia Roblesek euskal musika eskainiko du. Azaroaren 12an, gospela izanen da «Voices of Praise» taldearekin. Azaroaren 19an, musika afroandinoa izanen da «Alturas» taldearen eskutik.

## Baztango mintzoa

«Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia» liburua idatzi du Pello Salaburuk Maite Lakarren laguntzarekin. Herrian egiten den euskararen fonetika, fonologia, morfologia eta sintaxia ditu ardatz.

## Alfonso Garziandia Oronoz-Mugairiko apez berria

Vicente Sanzberro apezaren heriotzarekin, Oronoz-Mugairi apezarik gabe gelditua zen. Gan den astetik Alfonso Garziandia izendatu dute, lau herrietako apeza izanik: Ziga, Irurita, Arraioz eta Oronoz. Iruritako larunbateko meza desagertuko da, Oronozen izateko.

**ANTXITONEA**  
Trinketea

Jatetxea - Ostaturia  
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Irarte karrika  
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

**ITURRALDE**  
pvc & aluminio

3 667 264 025 • 948 581 967  
maxene@terra.es

Carlos  
Garaikoetxea  
Etxenike  
abokatua

948 581 408  
948 580 433  
Frantziako est. 12  
Amurabi 301  
ELBETE

**BAZTAN**

## Merkatari Elkartearen logotipoa aukeratzeko lehiaketa egingen da

Lanak aurkezteko epea  
azaroaren 15ean akituko da

**Maite Oteiza**

Sortu berri den Baztango merkataritzaren eta zerbitzu emaleen elkar-  
teak erabiliko duen lo-  
gotipoa aukeratzeko  
lehiaketa deialdia za-  
baldu du. Parte hartzen  
ahalko dute bakarrik  
Baztanen erroldatuak  
direnek edo bertan ikas-  
ten dutenek. Baztan is-  
latzen duten koloreak,  
jardunak edo bestak ba-  
loratuko dira obra hau-  
tatzeko orduan. A4 ba-  
tean edo formatu digi-  
tal batean aurkeztu be-  
harko diren lanak, Ariz-  
kunenean utzi beharko  
dira azaroaren 15a bai-  
no lehen gutun batean  
zehaztuz logotipo lehia-

ketarako eskaintza de-  
la. Epaimahaia elkar-  
teko zuzendaritza batzordeak osatuko du, hala  
nola, Unai Arriaga pre-  
sidentea, Maria Luisa  
Tena presidente orde-  
a, Isabel Gonzalez idazka-  
ria, Angel Arraztoa diru-  
zaina eta Asun Irigoien,  
Neli Yanci eta Asun Iri-  
goien batzordekideak.  
Lanak aurkezteko epea  
akitu eta aste batera  
gehienez jakinaraziko  
dute lehiaketaren emai-  
tzak. Irabazleak 300 eu-  
roko saria eskuratuko  
du. Logotipoa elkar-  
teak zabalduko dituen be-  
rrietan eta bultzatuko di-  
tuen ekimenak iragar-  
tzeko erabiliko dute.



ARGAZKI: MAITE OTEIZA

### Bidasoa errekaren garbiketa

Aizkolegi taldeak anto-  
latua, Bidasoa garbi-  
tzeko kanpainaren bar-  
nean, buruilarren 30ean  
Oronozen, eta urriaren  
21ean Elizondon eta Iru-  
ritan ibai eta erreken  
garbiketari aritu ziren.  
Oronozen 150-200 per-  
sona inguru bildu zi-  
ren, Iurritan 28 eta Eli-  
zondon 36. Garbiketari  
parte hartzeko izena eta  
Nortasun Agiria eman  
behar zen, Ardura Zibi-  
leko Asegurua kontra-  
tatu zutelakoz.



**Lanchas**  
PARKETAK - TARIMAK  
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA  
ESTALDURA OROKORRAK  
Bera - Telefono: 948 630 735 - 407 406 781

**ZALDUBI**  
SUKALDEKO MOBLEAK  
Martin Lizasoain Adarza  
Etxetresnak · Armairua  
Komunak · Manparak  
Tel: 948 580 562 · Faxa: 948 581 859  
Zaldubia Industrialdea · 31730 IRURITA

**POTTOKI**  
ZIKLO GURE ENDO PERRA  
EGAZTZEAN!  
Zaldubia Plaza 9 - Solera  
48100 ELIZONDO (Nafarroa)  
Tel: 948 990 808  
zaldubi@zaldubi.es  
Abituratuak: Martenak  
8:30 - 12:30  
14:30 - 20:00  
BILLETAK  
BIBOTEK  
KOTXENAK ALKIN  
LEHENDAKO KOTXALUA  
KOTXENAK KANAL  
KOTXENAK ENKIN  
HUR-PILO ALKIN  
OFIZIAL  
JOKOZ DIBERTZEA  
Zaldubia Plaza 9 - Solera  
48100 ELIZONDO (Nafarroa)  
Tel: 948 990 808  
zaldubi@zaldubi.es

**ARMUA**  
Jatetxea  
Tel: 948 599 131  
Zuzendaritza ordea, 3. km  
URDAZUBI

**frexa**  
zaitoz gurekin!  
KULTURKARI  
publizitatea @ zerbitzuak  
2006/11/02 • 433. zbk

## ZUGARRAMURDI

# Kontent itzuli da herritar taldea Bartzelonako Sorginkeriaren Feriatik

Zugarramurdi zen gonbidatu berezia eta tratamendu berezia jaso zuten

## Margari eta Koro

Aitzineko Ttipi-Ttapa batetan aipatzen ginuen bezala, Bartzelonan egin zen "Sorginkeriaren feria"rat Zugarramurdi ordezkatzeko talde bat joan zen.

Denetara 8 lagun egon ziren eta biziki kontent itzuli ziren. Erakusketak postua jartzeaz gain, bi ekitaldi eskaini zituzten: alde batetik gure herriko gertaerak kontatu eta kantatu zituzten (Carlesek katalanez kantatu eta Marifak eskuaraz kontatu); eta bertze aldetik txalapartaren doinuak eraman zituzten. Bertzalde, aurten Zugarramurdi omen zen herri gonbidatua, eta horrexegatik tratamendu berezia ere jaso omen zuten (bazkari eder bat eta).



KORO ITAZOKOREN «LAS BRILLAS DE ZUGARRAMURDI» LIBURUTIK  
Sorginkeriari buruz azalpenak eman zituzten herritarrek Bartzelonan.

## Informatika ikastaroa haur eta helduentzat

Ikasturte hasierakin bertze ikastaro motak ere martxan jartzen di-

ra, eta gure hauetan eskolako Guraso Elkartek antolatuta informatika klaseak ematen ari dira. Urrian hasiz eta maiatza arte 25 lagun

arituko dira astean behin (asteartetan) ordenagailua menperatzen saiatzen. Lau talde desberdin egin dira: alde batetik haurrak, eta ber-

tzetik helduak hiru mailatan bereixirik (dakite-naren arabera).

## Mexikorat Arkupeak elkartearekin

Denborak aldatu direla ez du nihorrek ukatuko, eta horren adibide bat gure xaharren "martxa" da. Lehengo xaharrak su bazterrean baldin bazuten beren tokiak, gaurkoak erraxago aurkituko ditugu autobus batean.

Hara bertzenaz: Arkupeak erretiratuen elkarteak antolaturik Mexikora gaki zaizkigu Amparo, Carmen, Puntxi eta Javier. Eta "Goizmendik" antolaturik kostako Santiago Bidea eginen dute Juan, Mertxe, Joxe, Martina eta Miguelek.

  
**Javier Manterola**  
*Talantzu irratizuzteko*  
argazkia • gisa • eskizaketa  
c. 929 449082  
Bartzelona 4, beheko • BERA

  
**ERROTAZAR**  
**harategia**  
Bertako produktuak  
Eztegara, 3 • BERA  
Teli/Faxa: 948 630 088

**Pinturas Pikabea**  
**Molinera**  
**PINTURAK**  
Esmalteak • Bernizak • Lasurea urpintura • Margo klase guziak  
BONDEX urpintura • Esmaltea eta pintura plastiko ekologikoa  
2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina  
10 minututan zuk nahi duzun kolorea  
Zelain auzoa, Aceralia fabrikaren parean • BERA  
TEL: 948 630 240 • MUG: 627 622 333

## URDAZUBI

# Informatika eta yoga ikastaroak antolatu dira

16 heldu eta 9 haur hasi dira informatikan

Fanny eta Aitor

Zugarramurdiko eta Urdazubiko Guraso Elkarteak informatikako ikastaroa antolatu du Urdazubiko eskolatan. Ikastaro hau haurrei (6-16 urte) eta helduei zuzenduta dago, eta asteartetan izanen da, 17:00etatik 18:00etara, hain zuzen ere. Ikastaro hau hil huntatik maizta arte luzatu egiten da eta izen emateko epea urriaren 15ean ibxi egin zen. Hamasei helduk (gehiengoa emakumeak) eta bederatzik hurrek izen eman dute.

### Yogako ikastaroa

Arkupeak Jubilatuen Elkarteak yogako klaseak antolatu ditu Urdazubiko eskolatan



ARKUPEAK

Yoga ikastaroa antolatu du Arkupeak elkarteak.

gimnasioan. Klaseak orzegunetan izanen dira, gaueko 9:00etatik 10:30ak arte. Orain arte hamar bat pertsona

apuntatu dira, eta izen emateko epea oraino zabalik dago. Ikastaro hau ekaina arte luzatu ko da.

## BERTIZ

# Ehizari buruzko XIV. Jardunaldi Gastronomikoak hasi dira

Ehizatzen diren animalien haragia dastatzeko aukera izanen da eskualdeko zazpi jatetxetan

### titi-ttapa

Ehiza denboraldian garela eta, Bertiz Parzuego Turistikoak antolatzen dituen ehizari buruzko jardunaldi gastronomikoak, urriaren 28tik azaroaren 25era iraunen dute gure eskualdeko hainbat ostatueta. XIV. aldikoz, Baztan, Malerrika eta Bortziritako 7 jatetxek menu bereziak eskainiko dituzte, Almandozen, Beola, Arantzan, Aterpe, Beran, Zalain, Donamarian, Donamarian Bentak, Donezteben Amezitia, Igantzin La



Villa eta Lesakan Koxkonta. Menu guziek ihizia izanen dute oinarri. Hori dela eta, aipatutako jatetxeetan, uso, eper, orein, orkatz edo basurde haragia dastatzeko aukera izanen da. Bi plater eta postre batez osatutako menuak 25 eta 30 euro arteko prezioa izanen dute BEZik gabeko eta edariak kontuan hartu gabe.

**HEBILINO ETXENO IDENTZIGIX**  
CAFÉ DE LA MAIRIE  
T: 0559542319  
Moulin eta Yvonique  
**SARA**

**SOULE**  
hileta artea  
Tel: 948 453 444  
Mug: 629 659 583  
**ARIZKUN**

**MENDI**  
ostatua  
Santiago 25  
948 580 313  
ELIZONDO

**MENDIALDE**  
Jatetxea  
T: 948 453 050  
N-121-8, 66 km  
AMAIUR

**titi**  
**ttapa**  
☎ (0034) 948 635458

**m bentamiguel**  
denda, jantziak eta osaketa  
Ongi zaindutako sukaldaritza  
Menuak aukeran  
Tafelaria  
Liloreak  
Jantziak  
Udaberria  
Udaberria

**Okindegia** *Jatetxea*  
**Uxoa**  
OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata  
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburueta)  
Especialitatea parrillan erretako jakietan  
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen errea,  
goxo goxo!

Ordoki Industrialdea  
Tfnoa: 948 453 403  
31713 ARIZKUN

## SARA



ARGAZKIA: XABI BERROUET

**Sara eta Itsasuko gaztetxeen arteko errugbi partida**

Urriaren 21ean, larunbatarekin, Sarako gaztetxeak errugbi partida antolatu zuen Itsasuko Goxoki gaztetxearen kontra. Jende ainitz hurbildu da errugbi zelairat, partida berezi hori ikusteko, dena giro onean iragan da. Eguna bukatzeko aperitifa eta afora antolatuak izan ziren errubi zelaian.

# Ekitaldi ezberdinak antolatu ditu Olhain ikastolak azken asteetan

Gaur egun 44 ikasle ditu eta bi ikasgela berri egin dira

**Laetitia eta Sandrine**

Gaur egun ikastolak 44 ikasle kondatzen ditu, 25 ama eskolan eta 19 lehen irakaskuntzan (CM1 maila arte). Ikastolako lehendakaria Mirentxu Ibargarai da, eta berarekin bi irakasle badiara Marie Jo Berrouet eta Bixente Echegaray biek euskara eta fran-

tsesa irakasten dutenak. Espero dute CM 2 maila idekitzea heldu den urtean, horrela maila guztiak aurkitzen ahaliko dira. Erran behar da ikastola handitu dela, lehenagoko gimnastikako gelan bi ikasgela eginak izan direla. Horren aparte, ekitaldi desberdinak antolatuak izan dira:

- Goiz batez haurrak hondakin desberdinak bildu dituzte eta ondotik sailkatu behar izan zituzten, horren bidez sentibilizatuak izan dira hondakinen arazoaren gainean.

- Irulegira joan dira, eta bereziki "Arretxea" baserrira mahats biltzera. Mahatsa pikatu,

saskietan eman... auke-  
ra ona ikusteko eta ikas-  
teko nola egiten den ar-  
noa.

Bestalde «Bertsulari» eskola ideki da. Hiru eskoletako haurrak joaten ahal dira, kurtsuak asteazken goizean dira, «Bertsularien lagunak» elkartearen ki-deak antolaturik.

## FLASH

**Eresoinka**

Duela 70 urte sortu zen Euskal Herriko lehen Abesbatza Nazionala Saran eta urteurrena ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu dira azaroaren 11n: kontzertuak, so-lasaldiak, omenaldiak...

**Xarbo erreka auzoko bestak**

Lehen aldikotz Xarbo erreka auzoaren bestak antolatuak izan dira urriaren 21ean. Goizean ahate jokoa egin izan da eta zikiro bat 100 pertsona hurbildu duena. Eguna goxotasun ainitzekin pasatu dute auzoak eta agian helduden urtean berantolatu izanen da.

**Errugbia**

Urriaren 22an igandearrekin Sarako taldeak Pouillon errezibitu du. Erreserbak galdu du 31-13 bai eta lehenak 7-6. Azaroaren 5ean St Pierre du Mont taldearen kontra arituko dira Saran.

**Esकुbaloia**

Urriaren 14an Sarako senior taldeak Lescar taldearen kontra aritu dira kanpoan, galdu zuten 23-13 eta urriaren 21ean etxean aritu ziren Boucau-Tarnos taldearen kontra irabazi zuten 27-20.





MAGNESITAS NAVARRAS, S.A.k behar ditu, Zubirin duen lantegirako, honako profesional hauek:

#### MANTENTZE ELEKTRIKO ETA TRESNERIAKO ARDURADUNA

Prestakuntza: LH2, elektrizitate arloan edo Industri Ingeniari Teknikoa, elektrizitate edo industria-elektronikoko espezialitatean. 5 urte baino gehiagoko esperientzia muntaketaren teknikan eta mantentze industrialean.

#### MANTENTZE ELEKTRIKOKO TEKNIKARIA

Prestakuntza: LH1 edo LH2, elektrizitate arloan. 5 urte baino gehiagoko esperientzia mantentze elektrikoko teknikari lanean edo muntaketa industrialean.

#### LANTEGIKO LANGILE TEKNIKARIA

